



San Bartolome, 2.
Ibarrako plaza
Tel.: 943 67 11 38
Faxa: 943 68 38 52



Falta
direnak
gogoan,
Urte berri
on!!!!



Elkarrekin bidean

ATARIA-ren 606. ale hau jasotzen duzunerako azken ostikoak ematen ariko da 2016. urtea, behin batean bera jaio zen urtetik kontatzen hasita. Irakurtaldia edo paxalegea eman, berri, etxera sartutako egun berean edo Urte-zahar egunean, edo urtea amaitu eta gero beharbada, egingo diozu. Ez dio axola! Gaur baino bihar gehiago balio duen ale horietakoa baita hau, Tolosalde honetan 2016a izan denaren hezurdura, erradiografia, oroi-idatzia. Nonbait gordea edo jasoa edukitzea atsegin dugunetakoa, buruak huts egiten digunean non begiratu izatea gustatzen zaigunetakoa. Hemen baitauzkazu eskualdeko bizitzaren urteko aztarnak, direla gizarte gaiak, politika, kultura, harremanak, kirolak... Arrastoa utzi duten berrien bilduma interesgarria.

TOLOSALDEKO ATARIA-ren sendotze urtea izan da. 2013ko urrian argitaratu zen paperezko lehen alea; aldi berean hasi ginen lehen berriak hedatzen www.ataria.info webgunean eta uhinetan zabaltzen ATARIA IRRATIA-ren lehen oihartzunak. Ordutik hona etengabea izan da onerako bilakaera. Babestuak eta onartuak sentitu gara, gero eta gehiago. CIES-en udaberriko inkestak esan zigun 14.000 irakurle genituela, ez da marka makala 49.000 biztanle eskas dituen eskualde baterako. Interneteko ATARIA-k, berri, 950.000tik gorako bisitarekin itxiko du urtea; bada zer edo zer eskualde txiki honetarako, eta euskaraz bakarrik diharduen hedabide batentzat. Irratia da zuen artean lekua hartzea gehien kostatzen ari zaiona, baina fm 107.6 zenbakia egiten ari da, poliki-poliki, bere tokia hartzen.

Hau dena ezinezkoa litzateke aipatu dugun babes eta onarpen hori gabe, egunero irakurtzen, entzuten eta

ikusten gaituzu hori baitzara izate bizi honi arnasa ematen diona. Eskerrik asko, zuri, Atarikide, eta eskerrik asko urtean zehar txintxo-txintxo beren ekarpen ordainezina egiten duten kolaboratzaile eta iritzi email talde bikainari: asko irabazten du gure eskaintzak eta asko irabazten gure jarraitzaileek.

Baina, diru bitarteko juxtuko proiektua da gure hau. Edozein gorabehera txiki nahikoa da honen oinarriak dardarka jartzeko. Halakoxe urtea izan da aurtengoa. Erakunde publikoen ekarpenekiko mendekotasun gehitxoko proiektuak izanik, gorriak ikustarazi dizkigu erakunde nagusien atzerapenak, ez baitugu xoxik ikusi urte amaiera arte: etorriko da, agindu digute eta ez gutxi, baina ez nahikoa eta berandu.

Eskerrak eskualdeko udaleei! Hauen konpromisoa eta apustua aipatu eta goraitatu behar da. 2017aren amaiera arteko lankidetzat hitzarmena sinatu genuen aurreko legegintzan, 2015ean, udalerrri gehienekin eta beste batzuk gehitu zaizkie aurten bertan. Hauteskunde ondoko aldaketek ez dute aldaketarik ekarri, zalantzarik gabe eta behar den garaian bete dute oraingoek lehengoan hitza. Esan indar ikaragarria du horrek, ekintza hori baita proiektu honi bere izaera estrategikoa aitortzen dioena. Duela gutxi zendu den Mariano Lazkano, Belauntzako alkatea, izan zen proiektu honen estrategikotasunean sinepsi eta bermatzeko zalantzarik izan ez zuenetakoa. Hura gogoan nahi ditugu eskertu honen alde gure udal ordezkari guztiak.

Elkarrekin bidean, urteberri on!

TOLOSALDEKO ATARIA

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Aranguiz
KUDEATZAILEA: Jexux Murua **TELEFONOA:** 943 655695 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus
IRRATIA: 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:



Tolosaldeko gizarte eragileak



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 77 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia

atarikide egiteko:
atarikide@ataria.eus
943 65 56 95



TOLOSA
LANDER EGIAK
BIZIKLETAZ TOKIORAKO
BIDEAN ETENALDIA

Tolosarrak 2014. urteko martxoaren 21ean hasitako bidaian eten bat egin zuen Lander Egiak eta etxera itzuli zen, «Eguberriak gerturatzen hasita, data aproposa zelako». Ondoren, urtarrila amaieran berriz elkartuko zen Indian utzi zuen bizikletarekin. Tolosa eta Tokio lotzen dituen bidean paisaia ederrak ezagutzeaz gain, jendea nabarmendu zuen tolosarrak: «Jendearekin izaten ari naizen harremana geratuko zait goan».



TOLOSA
GERO ARTE POXPOLO

Hiru saioetan Leidor aretoa lepo beteta, agur esan zion Poxpolo eta Konpainiak eszena-tokiei. Errege Egun bezperan, umeentzat egun berezia den horretan are bereziagoa bihurtu zen Tolosako haurrentzat. 20 urteren ostean, amaitutzat jo zuen ibilbidea Tolosako pailazo konpainiak: «Gaurkoan hemen bukatzen da. ez dut nahi inongo malkorik. Abesti, txalo eta algara, oroitzen ederrez beterik».

TOLOSA
24,5 MILIOI EUROKO
AURREKONTUA
ONARTUTA, 2016RAKO

24,5 milioi euroko «trantsizio aurrekontua»ren aldeko botoa eman zuten EAJko bederatzi zinegotziek eta baita PSE-EEK ere. EH Bilduk gaitzetsi egin zuen gobernuaren kudeaketa proposamena. Bi lerro nagusiak ondorengoetan zehaztu zituen Olatz Peonek: «Ekonomia eta enpleguaren sustatzea, eta gizarte politika dira zutabeak».

AMASA-VILLABONA
LAGA GRAFIKAK
ENPRESAKO 36 LANGILE
KALERATZEAR

Laga Grafikak lantegia aurre-konkurtso egoeran sartu zen 2015eko abenduaren 15ean, 40 urte indarrean egon eta gero. 10 nomina zorretan zeuden langileak, lanera ez joateko baimena jasota eta «ia erremedio gabe, 36 langile kalean geratuko» zirela jakinarazi zuten enpresako langileek. Epe luzeko egoera zela ere azaldu zuten.

TOLOSALDEA
SINDIKATUEK GREBA
MUGAGABERA DEITU
ZUTEN PAPERGINTZAN

ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek Gipuzkoako papergintzako sektoreko langileei greba mugagabera deialdia egin zieten. Adegirekin bilera izan ondoren, sindikatuek ez zuten nahikoa ikusi patronalak egindako eskaintza. Hitzarrena «blindatzea» funtsezkoa dela azpimarratu zuten, eta Adegik pausorik eman ez izana salatu zuten.



Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



ABALTZISKETA EUSKAL TONBOLAREN I. MEGASARIA

Jonathan Valdivielso abaltzisketarrak jaso zuen lehen aldiz Kontseiluak banatu duen Euskal Tonbolaren Megasaria. Kotxea, motoa, Karibera bidaia, kruzero bat, urtebetez hileroko 400 euroko erosketa txekoa Eroskin, telebista bat, Play Station 4a edota bazkari eta afariak jabetxe hainbatetan jaso zituen, Euskal Tonbolaren 10. urteurrenean.



BIDANIA-GOITZ SAIAZ MANKOMUNITATEAREN EGUNEKO ZENTROAK

Saiaz Mankomunitateak dituen eguneko zentroetara bisita egin zuten Osakidetza eta Asuncion klinikako zenbait ordezkari. Oro har adinekoen arretan ematen den zerbitzuaren berri jaso zuten bertatik bertara bisita egin zutenek. Pertsonarengan oinarritutako eredua dela azpimarratu zuten: «Oinarria beti da pertsona, adinean aurrera joan ahala ere, herritar izaera mantentzea ezinbestekoa da».



ORENDAIN SORGINAK, FEMINISMOAN EZAGUTUZ

Feminismoa oinarri duen taldeak Zarena Zarelako festa antolatu zuen, «gauza onak eskertzeko». Orendaingo Sorginak taldeak 2015eko urrian hasi zuen bere ibilbidea eta dozena bat emakume elkarten dira bi astez behin saioak eginez, feminismoa oinarri hartuta. Zarena Zarelako festaren helburua honakoa izan zen: «Ideia nagusia da gauza onak esan eta eskertzea. Beti gauza txarrei buruz hitz egiten da, eta garrantzia eman behar zaio alde positiboari».



ALTZO OTSABIOPE GAZTETXEA JARRI ZUTEN MARTXAN ALTZON

Gazteak herrian elkartu, ekimenak antolatu eta gazte mugimendua aktibatzekeo sortu zuten Altzonen gaztetxea. Hainbat egitasmo antolatu zituzten urtea hastearekin batera eta herritarren artean gazteek ekimenak «ilusioa» sortu zuela azaldu zuten. Udalean eskatera egin eta lokal bat utzi zieten gaztetxea sortzeko. 16 eta 21 urte arteko gazte asko daude herrian, 30 inguru eta horietako asko elkartzen dira gaztetxearen bueltan.



TOLOSALDEA KUDEAKETA PUBLIKOKO OSPITALEA ESKATU ZUTEN, BESTE BEHIN

Tolosaldeko osasun alorreko langileek agerraldia egin zuten urtarrilean Tolosan. Langileek jakinarazi zuten orduan 2016ko azaroan Osasun sailak INVIZAREKIN (Asuncion Klinikako) sinatuta daukan hitzarmena bukatuko zela. Egoera horren aurrean euren kezka azaldu zuten OSI Tolosaldea ematen ari den osasun arreta dela eta: «Osakidetza sareko ospitale publiko bat ezin da konparatu Tolosaldean dagoena bezalako klinika pribatu-kontzertatu batekin».



TOLOSA **INOIZ BAINO IKUSLE** **GEHIAGO ZEZENTXOEN** **IKUSKIZUNETAN**

Jairik zoroenak direla esan ohi da, baina 2016ko inauteriak ere normaltasunez pasa ziren. Gure Kaiolakok jaso zuten Inauterizale Kuttun izendapena eta Charlie Rivel pailazoz mozorrotuta aterra ziren udaletxeko balkoira. Kabi Alai elkarteko udal korporazioak bere aldetik, Artur Mas gonbidatu zuen txupinazora. Azken urteetan zezen plazako ikuskizunek ikusleak galdu dituzte, baina iaz Ostiral Mehean eta Pattar zezenean ikusle asko bildu ziren.



AIZTONDO **ERRAUSTEGIAREN** **AURKAKO PLATAFORMA** **OSATU ZUTEN**

Aiztondoko Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo hainbat herritarrek osatu zuten Zubietan egin nahi duten erraustegiaren aurkako plataforma. Azpiegituratik 20 kilometro bitarteko eremuan bizi diren gizakien osasunean zein ingurumenean kalteak eragingo dituela esan zuten eta erraustegaren aldekoie hausnarketarako deia egin zieten. Erraustegia egitekoak diren tokira joan ziren, eta hitzaldiak zein giza kate bat egin zituzten.



ALBIZTUR **HILOTZ BAT ALBIZTUR** **ETA SANTUTXOKO** **BIDEGURUTZEAN**

Gizonezko baten hilotza aurkitu zuten Albizturren, Tolosatik Bidania-Goiatzera doan errepidean. Ertzaintzak «indarkeriak eragindako heriotza» izen zela jakinarazi zuen eta ikerketa abiarazi zuen. Ibilgailu batek harrapatu eta hil ostean hilotza bertan utzi zutela zen lehen hipotesia. Ondoren jakin zen hildakoa eta beste bi lagun Azpeitiko enpresa batean lapurretan egiten ari zirela erori eta hil zela, eta horregatik utzi zutela bide bazterrean.



VILLABONA-ZIZURKIL **ZUBIMUSU ITXI ZUTEN ORIA IBAIAN UHOLDE ARRISKUA EKIDITEKO**

Villabona eta Zizurkil arteko Zubimusu zubia itxi behar izan zuten Villabonan ur zikinak bildu eta Adunako araztegiara bideratzeko lanak medio. Ura agentziak uholdeei aurre egiteko egindako planaren barruko eragozpena izan zen. Oria ibaiaren ibilgua zabaltzea, Villabona aldeko ibaiertzean horma berria egitea, zubiaren ur hustuketa ahalmena handitzea eta zubiaren ezkerreko begia zabaltzea ziren egin beharreko lanak. Baina ondorioz Zubimusu itxi behar izan zuten, bai oinezkoentzat eta baita trafikoarentzat ere, eta horrek eragozpenak sortu zituen herritarren artean. Era berean, trafikoan aldaketak egin behar izan zituzten.




ZIZURKIL HERRIKO KUTXAZAIN BAKARRA KENDU ZUTEN

Udal gobernua Kutxabankek hartutako erabakiaren inguruko salaketa publiko egin zuen. Azaldu zuenez, aurrez inolako jakinarazpenik gabe herriko kutxazain bakarra kendu zuten eta hori udalarekiko errespetu faltatzat jotzen. EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen udalbatzan eta Kutxabankek inelkarizketak egiteko asmoa azaldu zuen. Hila-beteetako negoziazioen ostean akordioa lortu eta Atxulondo kultur etxean jarri zuten kutxazain berria.



OREXA HERRIAREN ETORKIZUNA HERRITARREN ESKU

Beste hainbat herritan bezala, Orexan ere Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berritzeko prozesua egiten aritu dira herritarrak. Behin behineko dokumentua egiteko herritarrekin bilerak egiten aritu ziren eta parte hartze handia izan zen. Helburua argia zen: zaharkituta geratutako arauak aldatzea, herriko gazteak Orexan geratzeko aukera izan dezaten. Horretarako etxe berriak egiteko aukera uztea eta oraingoetan aukera berriak aztertzea zen erronka.



TOLOSALDEA BI HAZTEGI BERRI LEHIBERRIN ETA ZAZPI GUZTIRA

Tolosaldea Garatzeneko Ekintzailtz sailak 2015eko datuak emateko agerraldia, Lehiberri zentroko haztegietak azken bien aurkezpena egiteko baliatu zuten. Apatta Erreka industriagunean daude Maialen Larrañagaren Tekma Solutions eta Aritz Peredaren Kontuz Kreatiboak enpresak. Azken bi enpresa horiekin beraz, Lehiberriko 7 haztegiak beteta geratu ziren. Haztegietak helburuak enpresa berriak sortu eta finkatzea eta lanpostuak sortzea dira.



TOLOSA CORAZONISTEN ELIZA ETA ATARIKO ARTEA, IRAGANEKO KONTU

Corazonisten elizako eraiste lanak azken txanpan sartu ziren. Herritarrak elizaren aurrealdearen eraiste lanak ikustera gerturatu ziren, eta aurrealdean zegoen irudiaren eraistearekin batera bertan zegoen artea nola botatzen zuten ere ikusi ahal izan zuten. Antza birlاندatze bat egitea zen asmoa, baina zailtasunak medio, Corazonisten guneko etxebizitzaren enpresa sustatzaileak artea kentzea erabaki zuen. Artea bera birlandatu ordez, etxebizitzak egiteko ardura duen enpresak udaberri eta udazkeneko 11 zuhaitz-landare landatu zituen Usabalgo skate parkean. Corazonisten eliza zegoen tokian etxebizitzak egiten ari dira.



Construcciones y Promociones EPERGAIN, S. L.

IBARRA

ARANTZAZUKO AMA 10-12

- _ Bi eta hiru logelako etxebizitzak.
- _ Garaje itxiak.

VILLABONA -SALVADORA-

- _ Hiru logelako etxebizitzak.
- _ Garaje itxiak.
- _ Lokalak.



ALEGIA-BEISTIN



270.000 € + BEZ

AZKEN ZATIA
PISUAREN PREZIOAN,
ETXEA

231.390 € + BEZ

TOLOSALDEA ALDARRIKAPEN FESTA, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNEAN

Martxoaren 8a asteartea egokitu zenez ekitaldi asko asteburuan egin zituzten eskualdeko emakumeek. Urtero moduan bazkariak egiteko baliatu zuten aldarrikapen eguna askok, baina bestelako ekitaldiak ere izan ziren; hitzaldiak, elkarretaratzeak, tailerrak... Tolosan, udalak antolatutako ekitaldien artean, Miren Urkola zena omendu zuten *Miren Urkola gogoan. Tolosaldeko emakumeak dantzan eta kantuan* izenpean. Urkola berdintasun eta gizarte politika zinegotzia izan zen.



VILLABONA ARROAKO PLAZA BERRITZEKO LANAK HASI ZITUZTEN

Villabonako Arroa auzoko plaza berritu zuten iaz. Lanen lehen fasean lurzorua konpondu zuten, besteak beste, irriskorra izan ez zedin. Plazaren azpialdean aparkalekuak daude eta itoteak izaten zituztela—eta kexu ziren bizilagunak, hori dela eta, udalaren eta bizilagunen arteko hitzarmen bati esker, lanak elkarrekin finantzatu zituzten.

TOLOSALDEA 100.000 BIDAIARI GEHIAGO GARRAIO PUBLIKOAN

Urtebetean 100.000 bidaiari gehiago ibili ziren Tolosaldeko garraio publikoko ibilgailuetan. Aurreko agintaldian abiarazitako ereduak sustatzen jarraituko zuela esan zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak eta horretarako 1,6 milioi euroko inbertsioa iragarri zuen, izan ere, herritarrek zuzenean gastuaren %9,8 besterik ez dute ordaintzen. Lurralde-busen zerbitzu berria 2014an jarri zuten martxan, eta sarea osatzeko zazpi autobus, bi mikrobus eta bederatzita taxi jarri zituzten.



TOLOSA INDARKERIA MOTA GUZTIEN BIKTIMAK, BAT EGINIK

Gogora institutuak *Memoriaren plaza* erakusketara ekarri zuen Triangulora. Bilbon abiatutako ekimenaren hirugarren geltokia izan zen Tolosa. Memoria partekatzeko txokoan tolosarrei euren esperientzia propioak kontatzeko aukera eman zien, horrela indarkeria mota guztien biktimen bizipenak entzun ahal izan zirelarik. Ekimenak, estreinekoz, Tolosako bost alkate ohiak elkartu zituen. Hitzaldia eskaini zuten.



BERASTEGI OSASUN ZENTRO BERRIA, ERABILGARRI

Berastegi jarrek osasun zentro berria inauguratu zuten. Udaletxeko beheko solairuan dago eta biltegia, bi komun —horietako bat egokitutakoa—, material gela, medikuaren gela, eta erizainaren zein zainketa gela ditu. Proiektua gauzatu ahal izateko udalak erakunde ezberdinen laguntza izan zuen, tartean Osakidetza. Osasun zentroa egiteko 164.000 euro behar izan zituzten eta erdia Osakidetzak jarri zuen.

*Bereziko lantaldeak
festa zoriontsuak opa dízkizue*

Berezi

44-64
neurriak

**NEURRI
BEREZIAK**
Gazte eta emakumeentzako
moda

www.berezitallasespeciales.net



Errementari kalea, 3 • Tolosa • Tel.: 943 674 965

Berezitallasespeciales 



ALUSTIZA
margolariak

TOLOSA
606 595 308



BELAUNTZA FRONTOIA ERABAT IXTEKO LANAK BUKATU ZITUZTEN

Aspaldiko eskakizuna zen Belauntzako frontoia ixtearena. Egokitzapen ugari egin zituzten; guztiz ixteaz gain, larrialdi irteerak egin zituzten eta argiztapena hobetu zuten. Emaizarekin oso pozik azaldu ziren herritarrek.



VILLABONA ADOLFO LOZANO OLAZABALEN MEMORIA IDAZTEN

Aritza kultur elkarteak Adolfo Lozano Olazabal billabonatarren biografia idatzi zuen. *Mauthausen Memorialak* argitaratutako lanean plazaratu zen. Aritzak Frankismoaren aztarnak arakatu zituen Amasa-Villabonan eta horrela jakin zuen Mauthausen-Guseko esparruan bi billabonatar egon zirela, horietako bat izan zen Lozano Olazabal. II. Errepublikaren defentsan aritu zen eta Frantziara egin zuen ihes.

TOLOSA GOBERNATZEKO EREDU BERRI BAT IRAGARRI ZUEN UDALAK

Tolosako Udalak gobernatzeko eredu berri bat iragarri zuen, horretarako parte hartzea zehar lerro bilakatu zuen. Helburua herritarren eta botere publikoen arteko harreman estuagoa sustatzea zen. Lehen fasean talde sustatzaile bat osatu zuten, bigarren pausoa diagnostiko bat osatzea izan zen eta azkenik, estrategiak zehaztu eta plana idaztea zen asmoa. Aurkezpena egin eta gutxi-ira Guztion Tolosa taldea aurkeztu zuten hainbat herritarrek kale garbiketaren ordenantzaren harira, eta eredu berria kontraesankortzat jo zuten.



ALEGIA GAZTETXEAREKIN LEHEN KONTAKTUA IZATEKO EGUNA

Gazte Eguna egin zuten Alegian, lehen aldiz. Gaztetxean moldaketak eginen aritu ziren belaunaldi berrietako neska-mutilak eta hauek zein herriko beste gazteek gaztetxearekin lehen kontakua izan asmoz antolatu zuten jai eguna. Egitarau zabala osatu zuten; mendi irteera batekin hasi eta kontzertuekin amaitu zuten eguna.

IBARRA AISIALDI AUTONOMOAGOA, GAZTELEKU BERRIAN

Gaztematika diagnosis egin, 0 eta 30 urte arteko ibararren beharrak ikusi eta hutsuneak identifikatu zituzten. Behar gehien nerabeek zituztela ondorioztatu zuten eta arazoa konpondu bidean Gazteleku berria jarri zuten Azkue auzoan. Haur eta nerabeak beraien interesak eta nahiak adieraztea dela esan zuten orduan Mikel Zurutuza eta Itsaso Perez hezitzaileek. Egindako lanaren balorazioa egin zuten, positibotzat jo zuten, eta jasotako erantzuna espero baino hobea izan zela esan zuten.



EKAINA **GILTZARRIA,** **HAUTETSONTZIAK** **ZABALTZEKO**

Giltzarria adierazpenaren bitartez, Tolosaldeko Gure Esku Dagok galdeketak iragarri zituen 2017ko martxoaren 19rako. Eskualdeko 200dik gora eragile eta norbanakoren babesba jaso zuen estatua eredu aukeratu ahal izatearen aldeko adierazpenak, eta hurrengo hila-beteetarako mugarrira ezarri zuten, Tolosako Euskal Pizkundea plazatik. Orduz geroztik, Tolosaldeko Giltzarriak sustatu eta antolatu ditu erabakitze eskubidearen inguruko jarduerak.

12



AZAROA **GILTZARRIAREN** **AHOTSEI,** **AURPEGIAK JARRI**

Behin galdeketaren eguna iragarrita, udazkenarekin batera iritsi zen, Tolosaldera, hautetsontziak zabaltze biderako hurrengo pausoa. 28 herrietako galdeketa sustatuko duen lan taldea aurkeztu zuten Topic-en: herri bakoitzak ordezkari bana. Horiekin batera, sei pertsonak ahotsa eta aurpegia jarri zioten Giltzarriari, erabakiaren motorra pizteko: Oihana Iguaran, Iker Arinabarreta, Periko Peñagarikano, Marijo Esnaola, Mikel Artola eta Ioseba Mateos.



Ekainaren 4a zen, Tolosaldeko gizarteak mugarririk bat eraikitzeari ekin zion egunean. Hainbat esparru eta alorretako 200 herritar baino gehiagok bat egin zuten, eskualdeari azaltzeko *Giltzarria* adierazpena sinatu zutela. Zertarako eta, 2017ko martxoaren 19an, Oarsoaldeko herritarrekin bat eginaz, hautetsontziak zabalduko dituztela plazaratzeko. Horrela, Euskal Herriko estatu ereduaren inguruan erabakitze ordua iritsi dela



TOLOSALDEA

ERABAKIAREN ATARIKO URTEA

azalduz, *Tolosaldeko Giltzarria* martxan da ekainaz geroztik. Galdeketaren eguna da egutegian gorritz margotutakoa, baina, horren aurretik, sindarura bilketari berebiziko garrantzia eman diote; sinadurarik gabe, ez dago hautetsontziak zabaltzeko aukerarik. Boligrafoa hartu eta sinadurak biltzeko kanpaina bete-betean biribilduko du, beraz, *Giltzarriak*, erabakiaren atariko urtea.



AZAROA AURPEGIEKIN BATERA, SINADUREI ERE AHOTSA

Talde sustatzailearen eta talde motorraren egiteko nagusia galdeketa beharrezko baldintza eta bermeekin aurrera eramatea izaki, Topic-eko agerraldiaren ondoren sinadura bilketak hasi ziren, Tolosaldeko herri guztietan. Sinadurak ezinbesteko izango dira 2017ko martxoan erabakitze eskubidea gauzatu bada. Horrela, herriz herriko hitzordu jakinez gain, Tolosan eta Amasavillabonan larunbatero izango dute sinatzeko aukera, 16 urtetik gorakoek.



ABENDUA BOLIGRAFOEN IRAULTZA, 28 HERRIETAN BARRENA

Eskualdeko talde sustatzaileak iragarritako bidetik, urteko azken hilabeteak sinadurei lotuta eman ditu Tolosaldeko Giltzarriak. Herri bakoitzak bere modu, kolore eta forma eman dio galdeketa-aren atariko girotzeari, baina datozen hiru hilabeteotan beharko du, bero gehien, erabakiaren uholdeak.

Sustapena Abenduak 9 - Urtarrilak 5

izarrez beteriko gabonak

Tributo a Fito & Fitipaldis

Bualá

Lauroba

Mago Eriz

Dirt, jump-trial

Baobas

Kantu kolore

DJ Josu

Deabru beltzak

Zapatos en el aire

Musika, magia eta espektakuluen izarrek beteko dituzte Tolosako kaleak

ETA GAINERA

6.000€ saritan

100€ko 60 erosketa txeke



**Tolosa
& Co**



AMASA-VILLABONA LAGA ENPRESAREN ITXIERAGATIK 36 LANGILE KALEAN

Langabezia egoerara pasa ziren Laga enpresako 36 langileak. Amasa-Villabonako enpresak 3,5 milioi euroko zorra utzi zuen eta langileak hamar lansari kobratu gabe egon ziren; 700.000 euroko zorra utzi zuen enpresak langileekin, lansariak ordaindu gabe. LABek eman zuen langileen egoeraren berri: «55 urte ingurukoak dira langile gehienak eta urte asko daramatzatenak enpresan. Beraiek izango dute panorama beltzena».



AMEZKETA BOTE LUZEA BERRIRO ERE JOKOAN HERRIKO PLAZAN

Euskal Herriko pilota joko zaharrena da bote luzea. Aralarren artzainek jokatu zuten eta baita Amezketako plazan ere, bertan bueltan izan zen aspaldiko partez joko mota hau, erakustaldia medio. Erakustaldiak Gipuzkoako eta Iparraldeko selekzioak batu zituen eta ikusmirara sortu zuen Fernando Amezketarren plazaren bueltan. Gipuzkoarrek lortu zuten garaipena 7-2 irabaziz ordubeteko iraupeneko partida. Anton Mendizabalek eman zituen azalpenak.



IBARRA BERDINTASUNAREN GAIA MAHAI GAINEAN JARRI DU UDALAK

Emakume eta Gizonen Berdintasunarako I. Plana diseinatzeko Ibarako Udalak herritarren parte hartzea bultzatu nahi izan zuen, bileren bitartez. Udalak 2013an egin zuen emakume eta gizonen berdintasunari buruzko herri mailako lehen diagnostikoa. Plana diseinatzeko egitasmoa Politika Feminista eta Aniztasuna sailak jarri zuen martxan ordea. Honela, lehenik diagnostikoa eguneratzeko konpromisoa hartu zuten eta ondoren plana bera diseinatzeko.



OREXA HERRIKO ENERGIA EFIZIENTZIAREN INGURUKO IKERKETA

Udalbiltza eta Euskal Herriko Unibertsitatearen akordio bati esker, Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Graduko bikasle aritu ziren Orexako energia efizientziaren inguruko ikerketa egiten. Orexako Udalak lehenengoz jarri zuen horrelako esperientzia bat martxan. Honela, aurretik herrian hasitako ikerketa «osatu» eta bestetik, «gazteei aukera ematen diezu bere jakinduria praktikan jartzeko», azaldu zuen Eneko Maioz alkateak.



ALKIZA ARTEAZ LASAIAGO GOZATZEKO AUKERA, SLOW ART EGUNEAN

Alkizako Ur Mara museoan ospatu zuten Slow Art Eguna apirila hasieran. Orduan, Koldobika Jauregi, Ricardo Ugarte eta Julia Otxoaren lanak ikusi eta entzuteko aukera izan zen. Egunaren ospakizunak bilatzen zuena artea era lasaiago batean kontsumitzea zen, horretarako bost artelan aukeratu zituen museoak. Iberiar penintsulan esperientzia hau burutu zuen leku bakarra izan zen Ur Mara museoa, mundu guztian 120 museok parte hartu zuten ekitaldian.



TOLOSALDEA ESPAINIAKO GOBERNUAK ZOR DION MILIOIA, LEHIBERRI

Auzitegi Gorenak apirilean berretsi zuenez, Ekonomia Ministeritzak, Tolosaldea Garatzen garapen agentziari, 2011. urtean lortu zuen diru laguntzari dagozkion milioi bat euroak itzuli beharko dizkio. Lehiberri zentroa eraikitzeko diru laguntza bat emateari uko egin izanagatik, zorra kitatu beharko du Ekonomia Ministeritzak. Sei urteren buruan, berria «pozez» hartu zuten Tolosaldea Garatzeneko ordezkariak, tartean Olatz Peon agentziako lehendakariak.

848.151514.LG



% 30 DESKONTUA
EGUZKITAKO
BETAURREKOETAN

RALPH *Ralph* *POLO* *swatch* eta askoz gehiago...

www.multioplicasgipuzkoa.com   

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRETERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA
Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabil.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan



Aroztegieta, 9
Tolosa

Biteri, 11
Errenteria

Tel.:
665 708 163



Plaza Etxeberri
J A T E T X E A

Pedro Mari Otaño Plaza
943 69 19 36
Zizurkil

astehenetik
larunbatera...

gure berezitasuna
eguneko menua

www.plazaetxeberrieus.com en gaituztu

bertakoa, freskoa eta garaikoa



zuretzako egunero goxo-goxo prestatua



www.hogetahamahiru.com

Bazurka industrialdea, 1. zbkia
20260 Alegia • Tel.: 943 698 604

GOURMET OKINDEGIA
GOXOTEGIA KAFETEGIA MUSEOA

Iribarre

943 69 86 31

Pressto

943 69 86 17

Stylo berri

943 69 86 18



Bazurka industrialdea • ALEGIA



TOLOSALDEA AURREAKORDIOA PAPERGINTZAN, ADEGIREKIN

Aurreakordioa onartu zen papergintza alorrean apirila erdialdean. LAB, CCOO eta UGT sindikatuek sinatu zuten aurreakordioa Adegri patronalarekin, eta ELA sindikatua berriz aurreakordio horren aurka azaldu zen. LABek «onuragarri» tzat hartu zuen sinadura, «hainbat esparrutan lorpen esanguratsuak erdietsi» zituelako. Aurreakordioa berriz, ondoren langileek sektoreko enpresetan bozkatu eta erabaki beharko zuten.



TOLOSA KORAZONISTAK, URTE LUZEETAKO LANA TOLOSAN

Urte hasieran bota zuten Korazonisten eliza Tolosan etxeak eraikitzeko orube horretan. Erljio aktibitateaz gain, Poxpolin ikastolak funtzionatu zuen eraikin horretan urte luzeetan, 2 eta 6 urte arteko ikasleak hartuz, hau da, Haur Hezkuntzakoak. Bertan andereño izan zirenekin eta elizako azken apaiza izan zen Claudio Berroetarekin elkartu zen ATARIA. Poxpolin ikastolaren 75 urteetan Korazonistetako paretan horien artean gertatutakoaz jaso zen.



AMASA-VILLABONA ARITZA KULTUR ELKARTEA, MAUTHAUSEN-EN

Aritza Kultur Elkarteak Mauthausen kontzentrazio eremua bisitatu zuen, herritarren arrastoen bila. Adolfo Roque Lozano Olazabal Villabonan jaiotako zen, 1897ko irailaren 27an eta Mauthausen-Guseneko kontzentrazio esparruan hil zen 1941eko azaroaren 7an. Zorte handiagoa izan zuen Alberto Beafourtek, aske atera baitzen handik, 1945eko maiatzaren 5ean, AEBetako Armadak Gurutze Gorria Internazionalarekin batera esparrua askatu zuenean.




ZIZURKIL BAILARAKO LIBURUTEGIA, INAUGURATUTA

Apirilaren 23an inauguratu zen Zizurkil Plazida Otaño Aiztondoko Liburutegia. «Lokalismo»-tik ihes egitea du helburua eraikuntza berriak. 2013. urtean abian jarritako proiektua ezagutzera herritar ugari biltzearekin batera, gertutik probatu ahal izan zuten aurrerantzean herrian izango zuten zerbitzua. Liburuaren Nazioarteko Egunez zabaldu zituen ateak lehenengoz Zizurkil kokatutako liburutegiak. Bukalaiko ki-deek inaugurazioan parte hartu zuten.



ALBIZTUR OASIS RAID PROBA SOLIDARIOAN PARTE HARTUTA, «BETETA»

Oasis Raid proba solidarioan parte hartu zuten Ander Malbadi eta Ander Dorronsor albizturterrek. Gorabeherak izan arren, esperientziak merezi izan zuela esan zuten biek abenturaren bueltan. Bi herritarrek Aitzalde Raid Team osatu eta Dorronsororen Renault Kangoo-arekin proba solidarioan parte hartu zuten. Zazpi etapako proba osatu zituzten Marokon barrena. Proba solidarioa izanik, arropa eta material ortopedikoa utzi behar izan zituzten ibilbidean.



IBARRA EUSKARAREN ERABILERA, 6,5 PUNTUKO JAITSIERA

Ibarrako Udalak Euskara Mahaia jarri zuen martxan, euskararen erabilera 6,5 puntuko atzerkadaren aurrean «neurriak» hartzeko. Euskararen erabilera neurketa Siadeco enpresari esker burutu zuen Ibarrek, kaleetako ahozko elkarrizketa eta komunikazioetan euskararen presentzia-maila zentzuzko baterainokoa den jakiteko. Euskarazko komunikazioa 2007an %56,9an neurtu baziren ere, 2015eko neurketako datuak %50,2 ra jaitsi ziren.

Antzeko emaitzak

Ekinean Espainiako Hauteskundeak eta irailean Eusko Legebiltzarrekoak egin ziren; bietan alderdi nagusiek eskualdean lortutako posizioak berdinak izan ziren, baina hauteskunde bakoitzean jasotako boto kopuruan izan zen aldea.

Bi hauteskundetan parte hartu ahal izan da 2016an Tolosaldean, eta bertan jasotako emaitzek antzekotasun handiak badituzte ere, zenbait ñabardura egiteko modua ere bada. Espainiako hauteskundeak ekainaren 26an egin ziren eta Eusko Legebiltzarrekoak irailaren 25ean. Bietan, eskualdeko emaitzak kontuan hartuta, alderdi nagusien posizioak berdinak izan dira: EH Bildu izan da aurrena, eta ondoren EAJ, Ahal Dugu, PSE-EE eta PP

geratu dira. Saillapen horretan nabarmentzen Elkarrekin Ahal Duguk hauteskunde batetik bestera izandako botoen aldea izan da. Bietan hirugarren postua lortu arren, Espainiakoetan lehen bietatik oso gertu geratu zen.


Emaitza zehatzei begiraturata, Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan EH Bilduk 9.217 boto eta %41,2 jaso zituen; EAJk 8.193 boto eta %36,6; Elkarrekin Ahal Duguk 2.691 boto eta %12; PSE-EEK 1.146 boto eta %5,1; eta PPK

704 boto eta %3,1. Elkarrekin Ahal Dugu lehenengo aldiz aurkeztu zen hauteskunde horietara, eta beste lauetatik EAJ izan zen bakarra boto kopuruan igo zena. Abstentzioari dagokionez, herri gehienetan igo egin zen. Albiztur, Altzo, Gaztelu eta Larraulen bakarrik jaitzi zen, eta Ikaztegieta kopuru berdina izan zuten.

Eskualdeko bost legebiltzarkide daude egun. EH Bildutik Mikel Otero anoetarra (Arabako zerrendan) eta Mainer Otamendi orendainarra; EAJ-tik Bakartxo Tejeria larrauldarra (Legebiltzarreko lehendakari karguan errepikatu duena) eta Asteasun bizi den Luke Uribe-Etxeberria beasaindarra; eta Elkarrekin Ahal Dugutik Pili Zabala tolosarra, lehendakari gaur aurkeztu zena.

Espainiako hauteskundeak bereziak izan ziren, 2015eko abenduan egin ondoren eta gobernua osatu gabe geratu eta gero, ekinean errepikatu behar izan ziren. Abendutik ekainera bitartean zenbait aldaketa izan ziren, alderdi

EUSKO LEGEBILTZARREKO HAUTESKUNDEEK UTZITAKO DATUAK



HERRIA	ERROLDA		EH BILDU		EAJ		ELKARREKIN PODEMOS	EZKER ANITZA	EQUO	PSE-EE		PP		ABSTENTZIOA	
	2016	2012	2016	2012	2016	2012	2016	2012	2012	2016	2012	2016	2012	2016	2012
Abaltzisketa	252	244	79	89	73	78	7	0	0	0	1	0	1	35,32	29,51
Aduna	343	345	139	154	68	58	16	1	2	0	9	2	4	32,65	29,28
Albiztur	248	255	45	55	79	78	13	0	1	8	8	0	0	41,13	41,57
Alegia	1.258	1.325	391	483	286	278	66	14	4	25	54	10	17	36,72	33,51
Alkiza	259	284	76	91	57	75	13	2	1	2	3	2	0	49,54	37,32
Altzo	309	299	139	129	59	70	17	0	2	0	1	1	0	28,16	30,43
Amasa-Villabona	4.368	4.397	1.064	1.224	957	917	311	69	8	180	338	102	113	38,23	35,96
Amezketeta	720	755	224	295	132	145	32	6	1	7	10	7	11	43,06	36,42
Anoeta	1.517	1.395	459	473	311	291	124	18	6	48	107	35	45	33,82	28,75
Asteasu	1.109	1.108	306	389	189	208	67	9	1	17	44	9	15	45,81	38,63
Baliarrain	92	103	39	48	10	9	1	0	0	0	0	0	0	44,57	42,72
Belautza	198	214	48	67	43	41	13	0	0	2	5	1	3	44,95	44,86
Berastegi	844	836	253	292	224	204	41	0	1	8	22	10	8	34,72	34,69
Berrobi	443	445	128	175	71	67	21	4	2	13	11	9	8	44,24	37,08
Bidania-Goiatz	384	397	143	153	68	74	18	2	1	1	2	5	9	38,02	36,27
Elduain	174	181	60	72	41	44	7	1	2	0	1	2	1	35,63	33,15
Gaztelu	121	138	44	65	35	31	12	0	1	1	2	1	0	23,14	23,91
Hernialde	254	277	54	84	55	59	14	1	5	1	3	1	1	48,43	43,68
Ibarra	3.224	3.352	729	905	639	638	300	45	11	148	287	63	89	38,96	37,44
Ikaztegieta	367	367	119	142	88	79	27	2	0	4	13	5	3	32,7	32,7
Irura	1.224	1.159	302	339	280	283	87	12	5	30	69	13	25	39,62	32,01
Larraul	183	174	71	72	23	23	13	1	1	3	6	1	1	36,07	36,78
Leaburu-Txarama	269	282	108	127	61	67	12	0	0	0	0	1	3	30,86	28,72
Lizartza	441	465	222	262	66	67	16	4	0	0	1	0	9	29,71	24,73
Orendain	145	139	63	70	36	32	5	0	1	1	1	0	0	26,21	23,02
Orexa	89	89	74	75	2	2	1	0	0	0	0	0	0	11,24	10,11
Tolosa	14.809	14.599	3.259	3.661	3.779	3.780	1.280	186	73	545	1.051	377	465	35,82	33,76
Zizurkil	2.226	2.245	579	639	461	439	157	34	2	102	189	47	58	36,79	35,86
TOLOSALDEAN	35.870	35.869	9.217	10.630	8.193	8.137	2.691	411	131	1.146	2.238	704	889		




Botoa ematen Anoetan, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, irailan.

nagusien postuak mantendu baziren ere. Hori bai, lehenengo hiruak oso geru geratu ziren boto kopuruetan. Hala, EH Bildu izan zen lehenengoa, 6.679 boto eta %31 jasoz; EAJk 6.105 boto eta %28; Elkarrekin Ahal Duguk 5.637 boto eta %26; PSE-EEk 1.704 boto eta %8; eta PPk 1.163 eta %5. Abendutik ekainera, EH Bildu eta EAJ jaitsi egin ziren boto kopuruan. Elkarrekin Ahal Dugu igo egin zen (abenduan Podemos eta IU-LV bezala aurkeztu ziren, bananduta), eta PSE-EE eta PP ere zertxobait igo ziren. Abstentzioari dagokionez, igo egin zen eskualdeko ia herri guztietan, aurrekoekin alderatuta, Altzon, Gaztelun eta Leaburu-Txaraman izan ezik.

Emaitzak herriz herri begiratu gero, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, 28 herrietatik 25etan nagusitu zen EH Bildu. Beste hiruetan (Tolosa, Albiztur eta Hernialde) EAJ izan zen aurrena. Espainia osoan ere EH Bilduk irabazi zuen herri gehienetan, guztira 23tan. EAJk Albiztur, Hernialde eta Tolosan irabazi zuen, eta Elkarrekin Ahal Duguk Ibarra eta Iruran izan zen irabazle.

ESPAINIAKO HAUTESKUNDEEN EMAITZAK



B: BOTOAK	ERROLDA		EH BILDU		EAJ		ELKARREKIN AHAL DUGU 2016	PODEMOS 2016	IU-LV EZKERRA 2015	PSE-EE		PP		CIUDADANOS		ABSTENTZIOA	
	2016	2015	2016	2015	2016	2015				2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015
Abaltzisketa	246	242	63	70	47	54	15	9	0	3	2	2	1	0	0	45,93	42,98
Aduna	346	342	95	108	45	54	51	45	2	4	0	2	3	2	4	41,33	32,82
Albiztur	252	252	21	33	57	66	30	20	2	10	8	0	0	0	3	51,98	46,43
Alegia	1.260	1.261	269	342	206	234	154	131	10	38	34	40	27	8	12	41,43	35,69
Alkiza	259	262	53	58	43	64	36	25	3	1	1	3	2	0	1	44,78	38,55
Altzo	310	304	112	127	46	37	50	30	2	0	2	3	2	1	1	29,68	31,25
Amasa-Villabona	4.371	4.359	774	890	685	717	681	589	63	270	282	167	170	61	78	38,41	34,57
Amezketeta	716	721	143	178	101	115	89	52	6	9	5	13	12	0	1	49,44	47,02
Anoeta	1.499	1.494	352	382	220	240	235	247	7	83	78	64	55	12	25	33,82	29,38
Asteasu	1.108	1.111	249	275	144	147	155	127	11	25	28	21	22	4	7	44,86	42,84
Baliarrain	95	96	24	41	8	15	8	5	0	1	1	0	0	0	0	53,68	35,42
Belautntza	200	199	34	46	37	35	22	15	2	1	6	1	2	2	2	50	44,72
Berastegi	839	834	181	227	169	155	90	73	3	11	10	13	12	2	3	43,62	40,17
Berrobi	441	445	100	116	50	46	63	63	2	15	13	14	10	5	4	42,86	42,02
Bidania-Golatz	386	393	98	119	58	54	37	35	2	4	3	5	8	3	2	45,60	42,49
Elduain	176	180	40	46	32	38	16	15	1	0	0	2	1	0	0	48,86	41,67
Gaztelu	118	120	36	30	22	25	23	23	2	0	0	2	2	2	0	27,97	29,17
Hernialde	155	258	38	55	42	50	35	30	2	1	1	2	3	5	5	51,76	42,64
Ibarra	3.228	3.251	546	669	466	524	562	527	37	215	225	102	94	25	40	39,06	33,25
Ikaztegieta	367	368	96	111	53	76	62	53	1	14	9	6	5	2	3	35,69	28,26
Irura	1.223	1.167	201	249	203	227	204	189	12	42	47	47	32	25	26	39,57	31,71
Larraul	182	176	44	50	13	17	31	28	0	3	2	2	1	0	1	45,05	40,91
Leaburu-Txarama	266	263	93	82	49	48	20	20	2	1	0	4	4	1	0	36,09	39,16
Lizartza	447	447	189	215	47	51	40	24	0	0	0	6	1	0	1	36,02	32,66
Orendain	145	141	52	61	31	28	16	15	0	0	1	0	0	0	0	31,03	25,63
Orexa	88	92	64	72	1	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	23,86	14,61
Tolosa	14.801	14.818	2.271	2.596	2.934	3.157	2.568	2.480	188	798	752	553	538	161	218	36,04	31,81
Zizurkil	2.237	2.255	441	530	296	320	344	308	20	155	166	89	85	18	33	38,62	33,35
TOLOSALDEAN	35.761	35.852	6.679	7.778	6.105	6.595	5.637	5.178	380	1.704	1.676	1.163	1.092	337	470		

ASTEASU HITZARMEN DUINAREN ALDE BORROKATU DIRA ECHESAN

Urrian, bi aste eta erdiz lanuzteak egiten aritu ziren Gamesa lantegiko langileak. 2016 ia osoa igaro dute lan hitzarmenik gabe. Azaroa hasieran aurreakordioa lortu zuten langileek enpresa arduradunekin: lan sarietan, lan orduen murrizketan eta kontziliazioan hobekuntzak adostu zituzten. Energia eolikoaren lortzeko biderkatzaileen piezak egiten dituzte Asteasun eta 200 langile inguru ari dira. «Iaz irabazi historikoak» lortu zituen enpresak eta neurri bereko hobekuntzak eskatu zituzten langileak.

TOLOSALDEA GRAFIKAGINTZAKO LANGILEEK 3 EGUNEZ GREBA EGIN ZUTEN

LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek deitu zituzten hiru greba egunak, azaroaren 16an eta 30ean eta abenduaren 12an. Negoziazio mahaira eraman diren plataformetan soldatak igotzeaz gain langileek hitzarmen erreformatatik babestea eta azpikontratazioari mugak jartzea jasotzen da besteak beste. «Aldarrikapen guzti hauei bizkar eman die patronalak», sindikatuen ustez. Tolosaldean pisu handia du grafikagintza sektoreak eta besteak beste, hiru greba egunekin bat egin zuten SAM, Boro-bil edota Cicarsa bezalako eskualdeko enpresek.

TOLOSALDEA ERREPIDEETAKO LANGILEAK OTSAILETIK PROTESTAN

Greba mugagabeen dira otsailetik, Gipuzkoako bigarren mailako errepideen mantentze zerbitzuko langileak eta gutxieneko zerbitzuak baino ez dituzte eskaintzen. Aldundiak errepideen mantentze zerbitzuko adjudikazioa egiten du lau urtez behin eta geroz eta prezio baxuagoetan egiten duela salatu dute langileek. N-1ean Andoaindik Etxegarateraino eta A-15ean Andoaindik Leitza-rra bitarteko mantenuaz arduratzen dira UTE Goierrialdeko langileak. 30 dira guztira eta horietatik 21 daude greban.



AMASA-VILLABONA LAGA ITXI ETA 36 LANGILE UTZI ZITUEN KALEAN

Grafikagintza sektoreko enpresak 3,5 milioi euroko zorra utzi zuen eta kopuru horretatik 700.000 euro langileei zor zizkien lansariak dira. Apirila hasieran joan ziren langabeziara Villabonan kokatutako lantegiko 36 langileak. Batz bestea, enpresak hamar lansari utzi zituen zorretan langile bakoitzarekin. Egoera ekonomiko orokorrak lagundu ez arren, langileen ustez enpresaren «kudeaketa kaskarra» izan zen itxieraren giltzarria.



ADUNA UNIPAPELEKO LANGILE GUZTIAK LANGABEZIARA

Adunako Unipapelen lan egiten duten 69 lagunei aldi baterako erregulazio espedienteak aplikatu ziren enpresa jabeak uztailearen 11n. Hiru hilabetetan luzatutako negoziazioek ez zuten emaitzarik eman eta langileen ustez «etsigarria» izan zen prozesua: «Springwaterrek bi-hiru urte hauetan zor handia egin du eta erosle edo inbertsore bat agertzen zaien unean prest egongo dira enpresa saltzeko, nahiz likidatzeko».



ASTEASU **NEKANE TXAPARTEGI ATXILOTU ZUTEN SUITZAN**

2007an 18/98 auzian zigortu eta asteasuarrak Estatu espainiarretik alde egin zuen, berriro atxilotua eta torturatua izateko arriskutik ihesi. Azken urteetan Suitzatan bizi izan da eta Espainiaren estradizio eskari bati erantzunez, apirilean atxilotu zuten, Zurichen. Bere aurkako prozedura torturan oinarrituta dagoela uste dutelako asilo politikoa eskatu dute hainbat eragilek. Suitzak ez dio oraindik erantzun Espainiak egindako eskaerari.



IBARRA **GARIKOITZ IBARLUZEA, ASKE ETA IBARRAN**

Azaroaren 22an Espainiako Poliziak atxilotu egin zuen, Madrilgo Barajasen Londrestik zetorren hegazkin batetik jaitsi ondoren, bere aurka zegoen Auzitegi Nazionaleko agindu bat tarteko. Epailak baldintzapean aske utzi zuen atxilotu eta biharamunean. Abenduaren 1ean defentsak eta fiskaltzak akordioa egin zutela jakinarazi zen: auzitegiak bi urteko zigorra jarri zion eta aurrekaririk ez duenez, ez du kartzelara joan beharrik izango.

TOLOSALDEA **AZNAR HILTZEN** **SAIATZEA EGOTZITAKO 4** **LAGUNAK ABSOLBITUTA**

Otsailean atera zen epaiaren arabera, ez zegoen nahikoa froga Pello Olano, Goio Jimenez, Juan Mari Mujika eta Luis Iru-retagoiena zigortzeko. 2001eko apirilean misilak jaurtitzeko arma batekin Jose Maria Aznar Espainiako presidente ohia hiltzen saiatu zirela leporatu zieten lau akusatuei. 2015eko abenduan egin zuten haien aurkako epaiaketa, eta errugabe zirela deklaratu zuten laurak. Otsailean ateratako epaiak arrazoia eman zien, «errugabetasuna urratzeko moduko froga nahikorik ez dagoelako».

LIZARTZA **FRANTZIA IPARRALDEAN** **EGON DAITEKE** **'NAPARRA'–REN GORPUA**

Naparraren gorpua Mont de Marsan (Frantzia) ondoko udalerrri bateko basoan dagoela uste du haren familiak. «Estatu terrorismoarekin» lotutako pertsona batek Iñaki Errazkin kazetariari emandako informazio batean oinarrituta Espainiako Auzitegi Nazionalean Jose Miguel Etxeberria *Naparra* zenaren kasua berriro irekitzeko eskatu zuten senideek Iñigo Iruin abokatuak eta Paco Etxeberria forentseak. *Naparra*, Komando Autonomo Antikapitalistetako kidea, 1980ko ekainaren 11n desagertu zen eta urtero Lizartzako lola baserrian dagoen oroitarrian omentzen dute.

TOLOSALDEA **PRESO ETA IHESLARI** **OHIAK, PRESOK** **KALERATZEA ESKATUZ**

Tolosaldeko preso eta iheslari izandakoek, «euskal jendar-tearen borondatea errespetatzea, salbuespen legedia indargabetzea eta instituzioen aldetik goren mailako eta askotariko adierazpenak» eskatu zituzten apirilean eta *Amnistiaren norabidean preso eta iheslariak etxera* mobilizazioarekin bat egin zuten. Urtearen hondarrean, *Kalera, Kalera!* dinamika zabaldu eta jendarteari presoaren alde kalera atera dadin eskatu diote, «bakea eta askatasuna irabaztera».



www.ataria.eus • 107.6 fm

atarikide@ataria.eus • 943 65 56 95

Egin zaituzte atarikide!

- Zure herriko eta eskualdeko informazioa **euskaraz** jasoko duzu astartetik ostiralera etxeko buzoian, egunero interneten eta irratan.
 - Gipuzkoako Hitza ostiralero.
- Atarikide izatearen onurez gozatzeko aukera izango duzu:
 - Deskontuak: %50 eskeletan eta %25 iragarki labur eta zorion agurretan.
 - Publizitate eskaintza bereziak eta zozketetan parte hartzeko aukera.

Eta **ataria Irratia** (107.6 fm) eta www.ataria.eus edukiz betetzen eta indartzen lagunduko diguzu.





ALTZO XABIER AMURIZAK BERTSOLARITZA IBILBIDEA ETEN, ALTZON

Xabier Amurizak bertsolaritzan izan duen ibilbide oparo eta erreferentziak-koari amaiera eman zion Altzon. Miren Amuriza alabarekin azken bat-bateko saioa kantatu zuen Elordi elkartearen. Amurizak 75 urte beteta, bat-bateko saioetatik erretiroa hartzea erabaki eta Altzon txalo zaparrada eta maitasuna jaso zuen. Lehenik hitzaldia eta ondoren bertso afaria izan ziren; bertsolariak elorri-makila jaso zuen esker onez eta altzotarren oroigarri gisa.



TOLOSA JOSEBA USABIAGA, 'AUNDIYA' FILMEKO PROTAGONISTA BAT

Joseba Usabiaga aktore tolosarra Altzo eta Tolosan izan zen, besteak beste, *Aundiya* filmeko protagonistetako baten azalean grabaketa lanetan. Migel Joakin Eleizegiren, Altzoko Handiaren, anaia Martinen papera jokatu du. *Lo-reak* eta *80 Egunean* filmak sortu zituen Moriarti ekoizpen etxea dago *Aundiya* filmaren atzean. 2 milioi euroko aurrekontua du pelikulak eta hurrengo urte hasierarako dago aurreikusita bere estreinaldia.



IBARRA GAZTEEN IRAULTZA BILATU NAHIAN, MAIATZA IRAULTZAILEA

Ibarrako Gazte Asanbladak Maiatza Iraultzailea antolatu zuen bosgarren hilabetean ekimen mota ezberdinekin eta Maiatzaren Leheneko aldarrikapenetik abiatuta. Sistema kapitalistarekin ez daudela bat adierazteko eta «alternatiba bat» mahaiaren gainean jartzeko hilabetea izan zen. Hitzaldiak, dokumental proiektzioak, liburu aurkezpenak, presoen aldeko ekimenak, bertso afariak eta mahai inguruak izan ziren, besteak beste.



TOLOSALDEA I. P. PERNANDO AMEZKETARRA SARIKETA, HARITUZEK

Harituzek I. P. Pernando Amezketarra bertso txapelketa antolatu zuen. Txapelketa antolatzean hainbat helburu zituzten buruan. Batetik, urtean zehar saio batzuk antolatzea. Bestetik, beste eskualdeetako bertsolari gazteak Tolosaldean ezagutzera ematea. Txapelketa taldeak egitea aukeratu zuten: Goierri, Hernani, Oñati eta Erriarrantz bertso eskoletakoek hartu zuten parte eta sariketaren «saio umoretsuak» azpimarratu zituzten antolatzaileek.



TOLOSALDEA LAN HITZARMEN «DUINAREN» ESKEAN, LANGILEAK

Asuncion Klinikako langileen beste agerraldi bat izan zen maiatza hasieran, lan hitzarmen duina eskatu zuten orduan. Sei urte hitzarmenik gabe daudela salatu zuten, eta Eusko Jaurilaritzari euren egoeraren berri ematea aztertu zuten. Duela sei urte soldatak izoztuta ditzutela salatu zuten. Orduan aurreratu zuten mobilizazioekin jarraituko zutela: «Ikusita zuzendaritza honek ez duela asmorik negoziatzatzen jarraitzeko, hurrengo Jaurilaritzara joatea izango da».



TOLOSA/ZIZURKIL EUROPA OSOKO MUSIKA IKASLEAK IZAN ZIREN GIPUZKOAN

EMUSIK jaialdiak erakarrira Gipuzkoan izan ziren Europa osoko musika ikasleak. Eskualdean ere euren doinuak utzi zituzten; Tolosan eta Zizurkilen kontzertu bana eskaini baitzuten. XII. Musika Eskolen Europako Jaialdiari esker Tolosan Lopez Mendizabal plazan ikasle alemaniarrek, katalanak eta tolosarrak elkartu ziren kontzertu batean. Eta Zizurkilen berriz, kontzertua Joxe Arregi plazan izan zen eta Loatzoz gain, alemaniarrek, suitzarrek eta poloniarrek jo zuten.

GABONETAKO ZOZKETA

ZOZKETA

4 DIRU-SORTATAN BANATUA

URTARRILAK 10

6 HILABETEKO EPEA

*Gabonetan ere
Zurekin
eta Zuretzat*

1075 €

SARIA

ORIA
merkatarien
Villabona

www.oriamerkatariak.com





ZIZURKIL BAILARA HISTORIKOEN BANAKETA BERRIA, PROPOSATUTA

Hernandorena elkarteak aritu da azken bost urteetan bailara historikoen toponomia biltzen eta gaur egunera ekartzeko; proposamen berria aurkeztu zuen, gaur egungo errealitatera moldatuz.

Proposamen horri lotuta ondorengoak luzatu zituzten: Mendibailara, Buztinbailara, Akezkobailara, Elbarrena eta Ergoiena, eta guztien ardatza, herrigunea, «eta ez Zizurkil Goia edo kaskoa». Poliki-poliki izen horietara ohitzeko proposamena luzatu zuten elkartekoek.



BERASTEGI UDALETXEKO KULTURA SOLAIRUAREN INAUGURAZIOA

Berastegiko kultura solairua berria zabaldu zuten maiatza erdialdean. Gunea estreinatzen lehenak herriko txikiak izan ziren, 0-12 urte bitarteko liburategian, hain zuzen. Ondoren, inaugurazio ofiziala izan zen, agintariekin batera. Honela bisita gidatua antolatu zuten: liburutegia, talde lanak egiteko gela, Kz Gunea, herriko eragileentzako bilera gela, ikasgela eta balio anitzeko gela. Kultura solairuak 318.000 euroko inbertsioa suposatu du.



TOLOSA LARRAMENDI AUZOKO MESKITA BERRIA, ZABALIK

Litaaraufu elkarteak maiatza erdialdean inauguratu zuen Larramendi auzoan kokatutako meskita berria, Larramendi kaleko 4. zenbakian, hain zuzen ere. Inaugurazio ekitaldian agintarien parte hartzea izan zen eta ondoren, tea eta gozoak dastatzeko aukera ere eskaini zuen komunitateak. Abdeillah Krouitek, elkarteak lehendakariak meskitarako gonbitea luzatu zien tolosarrei: «Edonorenentzat» atea zabalik izango direla azpimarratu zuen.



TOLOSA HAURREN HIRIA EGITASMOAREN BIGARREN EDIZIOA

Maiatza erdialdean gaztetxoek, ordez-kari politiko, guraso nahiz herritarrei aurkeztu zieten ikasturte osoan zehar landutakoa. Aurtengo gaia aisialdia izan da, eta horretan jardun dute neska-mutil tolosarrek. Honela, Zerkausian burutu zuten seigarren eta azken bilera hartan, haurrek euren espazioa aldarrikatu zuten. Aurkezpenaren ondoren gainera, txokolate jatea eta DJa izan ziren hausnarketa eguna borobiltzeko modua.



TOLOSALDEA ESKUALDEKO ALKATEAK LEGE BILTZARREAN, ASUNCIONI BURUZ

Azaroan amaituko zen Asuncion klinika kudeatzailer Invisa SA-k eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun sailak duela bost urte sinatutako hitzarmenari begira eskualdeko alkateak Eusko Jaurlaritzan izan ziren. Oresa, Ibarra eta Alegiako alkateek ordezkatu zuten eskualde legebiltzarreko Osasun Batzordean. «Hitzarmenak horrela ezin duela jarraitu», argi azaldu zuten alkateek, bide horretan, «akatsetatik ikasi beharraz», ohartarazi zuten.



VILLABONA-AIZTONDO EL SALVADORREKIN ELKARTASUN EKIMENA, BESTE URTEBETEZ

Urtero, maiatza bukaeran El Salvadorreko Segundo Montes komunitateari elkartasuna adierazteko ekimena egingen dute eta aurtengo kokalekua Asteasu izan zen. Herrialde Katalanetako Ladó eta Vidreres herriak ere batu ziren oraingoan ospakizunera. Segundo Montes komunitateko bi gazte omendu dituzte aurtun, turismo ikasleak biak eta Aiztondoko bailaratik jasotako laguntzari esker ikasketak burutzeko beka jasotzen dutenak.

RAFA GORROTXATEGI



RAFA GORROTXATEGI-REN ERARA

Rafa Gorrotxategi, Gorrotxategi Familiaren hirugarren belaunaldia da. Bere haurtzarotik labean eta gozogintza-tresnen artean bizitza izan da. Rafa Gorrotxategi-ren etapa berri hau aurrera pausu handi bat da, bai kalitatean eta

bai berrikuntzan. Produktu berriekin harritu egingo gaitu eta uztartze berri hauekin, artisauro gozogintza, gol-malletarako gastronomiara eraman nahi du.



Rafa Gorrotxategi

TOLDOAN SALGAI
OBRADOREA, USABAL POLIGONOA, 14
DENDA, SOLANA KALEA, 3

943 89 03 06
www.rafagorrotxategi.eus





TOLOSA **BOOLOO GIPUZKOA,** **SENEGALDARREN** **ELKARTE BERRIA**

Senegaldar nazionalitateko 52 lagunek osatuta aurkeztu zuten Booloo Gipuzkoa elkarte. Tolosaldeko zazpi herri ezberdinetan bizi direla jakitera eman zuten aurkezpen egunean. Elkartearen sorrerarekin bilatzen zutena, «integrazioa bultzatzea eta ezagutzera ematea» zela azaldu zuten. Aurkezpen ekitaldi gisara, pintxo-pote senegaldarra prestatu zuten. Aurretik elkarte gisara jada urtebete bazeramaten ere, ekainekoa izan zen euren lehen ekitaldia.

BIDANIA-GOITZ **TXINKORTAKO JOLASTOKIKO ATERPEA INAUGURATUTA**

Txinkorta eskola jolastokiaren aterpe berria inauguratu zuten, eskolako jaiarekin bat eginik. Aterpe hori, 2014ko Bidania-Goiatzko Eskola Txikietako Festaren fruitu da, bertan atera zen irabaziarekin ordaindu baitzen zatirik handiena eta gainontzekoa udalak ordaindu zuen. Inaugurazio xumea izan zen, Amets Arzallusek festa egunerako bidali zuen bertsoa gogoratu zuten, agurra dantzatu zuten eta plaka agerrarazi zuten.



TOLOSALDEA **25 MILIOI EUROKO** **PLANA HERRI TXIKIEN** **GARAPENERAKO**

Ekonomia Suspertzeko Planaren barruan lehen sektoreari lotutako Landa-gipuzkoa+ egitasmoa aurkeztu zuen aldundiak. Programa Albizturko udal-txean lurraldeko eragile ezberdinekin egindako bileran plazaratu zen. Helburua, «Gipuzkoako landa eremuetan eta herri txikiek maiz jasaten duten desorekari aurre egiteko» aldundiak 25 milioi euroko aurrekontuarekin hornituko zuela egitasmoa jakinarazi zuen agerraldian.




TOLOSA **BENITO LERTXUNDI** **PROTAGONISTA** **SORMENETIK-EN**

«Madarikatu hauek, hunkitu egin nautel!» izan ziren Benito Lertxundiren esker oneko hitzak, Galtzaundik antolatutako udaberriko Sormenetik saioaren harira. Orduan, Zerkausia azpian eskainitako saioan Iñar Sastre piano jotzailea eta Imanol Artola bere lanaren aztertzailea izan zituen bidelagun. Naroa Anabitarte eta Juantxo Zeberio galdeztaile lanetan izan ziren. Azken batean, oriotarraren lana hizpide sorkuntzaz aritu ziren bertan bildurikoak.



TOLOSALDEA **BEHIN BETIKO EPAI** **IRMOA, AKTAK** **EUSKARAZ BIDALTZEARI**

EAEko Auzitegi Nagusiak behin betiko epai irmoa eman zuen ekaina hasieran aktak euskara hutsean bidaltzea zilegi dela ebatziz; Irurako Udalarekin emandako pausoak lehen aurrekaria ezarri zuten. Uemak horrela baloratu zuen epaia: «Euskarazko aktak egitearen aldekoa da eabazpena, eta irmoa, kontrako helegiterik onartzen ez duena». Carlos Urkijok hainbat udalen aurka martxan jarritako auzibideek erantzun bera ekarriko zutela aurreratu zuten Uematik.



Alegiako
Udala

**ATARIA ETA BERRIA
LEITUZ
EUSKARAZ
ILUSTRATU GAITEZEN**

Tel.: 943 65 30 16

Tel.: 943 65 10 87

Faxa: 943 65 48 15

alegia@udal.gipuzkoa.net



IKAZTEGIETA HERRI GUZTIAK HAUSPOTUTAKO JAIA

Egun borobila izan zuen ekainaren 13an, igandean, Ikaztegietak. Eskola txikiak izanagatik handi direla erakutsi zuten Eskola Txikien Festan. Ikasleak, gurasoak eta irakasleak biltzeaz gain, herritarrek ere erakarri zituen festak. Txikienetik handienera bat eginda ibili ziren lanean; herria bizirik dagoela eta eskola txikiak ere bizirik daudela aldarrikatu zuten. Arroako eskolak hartu zuen 2017koa antolatzeko lekukoa.



AMASA-VILLABONA MAITE IZAGIRRE, HERRIKO ALKATE BERRIA

Ekainaren 27ko ohiko osoko bilkuran izendatu zuten zinegotzi jeltzalea Amasa-Villabonako alkate. Iban Agirre alkate zenak bere dimisioa aurkeztu izanaren harira, aste gora-beheratsuei amaiera eman asmoz, haren lekukoa beteko zuen aurrerantzean Maite Izagirrek. Bozketan paper bidez egin ondoren, EAJko Maite Izagirrek aginte-makila hartu zuen. Bilkuran ika-mikak izan ziren alkatearen soldataren harira.

TOLOSA TOLOSAKO PAPER ESKOLA, MENDE ERDIA PAPERARI

Tolosalde paper munduan erreferente bilakatzearen errudunetako bat Paper Eskola izan da. 1965-66. ikasturtean eskola abian jarri zenetik, 50 urteko historia luzea bete du Tolosako ikastetxeak. Egun, Paper Eskolako ikasleak Hego Amerikan eta estatu osoan daude zabaldua, eskolak mendeko erdia bete duen ikasturtean. Honela, urteurrenarekin bat eginda hainbat hilabetez luzatu dira ospakizunak: liburua eta dokumentala argitaratu dituzte, eskolaren historia jasoz.

TOLOSALDEA ELKARLANA JARDUN EREDU 'ATARIA'-KO URTEKO BATZARREAN

Tolosaldeko Komunikazio Taldeak arrakastaz bete zuen urteko batzarra. Era-kunde, lankide eta kolaboratzaile sare guztiari gonbidapena luzatuz. Villabonako Subijanan bete zuten hitzordua. Administrazio Kontseiluko kideak, langileak, erakundeetako ordezkariak eta TOLOSALDEKO ATARIA komunikabideak duen kolaboratzaile sarea osatzen duten hainbat eta hainbat kide bertaratu ziren. Komunikabideak «elkarlana du jardun eredu» eta gizarteratzea du behar-beharrezko «proiektua ezagutzera eman eta eskualdean zabaltzeko», horrela jakinarazi zuen lantaldeak.

ALEGIA APARKALEKUEN AUKERAREN ALDE EGIN ZUTEN HERRIAN

Larraitz auzoko Mendebalde hiritar-tzeko prozesuak urrats garrantzitsua eman zuen ekainean. Bertako bizilagunei proposamenak egiteko aukera eman zitzaion lehenik eta arduradun teknikoek luzatutako aukera ezberdinen inguruan eztabaidatu ostean, aisialdi guneak lehenesten zituen proposamen baten eta aparkalekuak lehenesten zituen beste baten artean aukeratzeko galdeta eginda, aparkalekuen alde egin zuten herritarrek. Erregulatutako 95 aparkaleku izango dira.



TOLOSA GIDARI BERRIAK TOLOSAKO BABARRUN KOFRADIAN

Mende laurdenaren ondoren, Tolosako Babarrunaren Kofradia eraberritu zuten. Gazteek osatuko dute kofradia, eta Imanol Zubelzu Lakunza izango zen ordutik elkartearen lehendakari berria. Imanol Zubelzuz gain, Irati Artutxa, Miriam Arandia, Leire Zabala eta Armintz Gorrotxategik osatuko zuten kofradia. Kofradiaren logotipo berria ere aurkeztu zuten uztaileko ekitaldian. Leire Zabala egileak «babarrunaren kolore diferenteak» nabarmendu nahi izan zituen.



TOLOSALDEA TURISMO GIDA BATERATUA, GOIERRIREKIN BATERA

«Barrualdeko herrientzat lerro estrategiko bilkatu da elkarlana», horrela laburbildu zuten ordezkari politikoeek lanaren nondik norakoa. 2008an ekindako bideari jarraitu, eta Tolosaldeak eta Goierriek turismo gida bateratua berritu zuten uztailean, ingelesera nahiz frantsesera itzuliz; Topiz-en burutu zuten aurkezpen ofiziala. *Euskadiko bihotza* gida eraberritua da proiektuari izena ematen diona eta «izateko eta bizitzeko modu bat» jasotzen du.



ALEGIA HERRIKO EMAKUME KIROLARIEN ESKU TXUPINAZOA

Alegiako emakume kirolariek bota zuten aurtengo festen txupinazoa. «Emakumeen kirol mundua bultzatzeko modua egoki»-tzat ikusi zuten aukera protagonistek: Ainhoa Garmendia pilotaria, Amaia Oramendi futbolaria, Nora Alustiza futbolaria, Ainhoa Ontsal pilotari eta futbolaria, Miren Salbador arraunlari ohia, Paula Del Pozo igerilari eta atleta, eta Intxurre futbol elkarteko jubenil taldeko kideak. Neska gazteentzat «motibagarria» dela esan zuten.



TOLOSALDEA AULKI BAT, GIPUZKOAR ETA NAFARREN TOPAGUNE

Bedaio eta Azkarate arteko mugara kultur uztartzea ekarriko zuen udan, Azken Muga proiektuak. Aulki erraldoi batez aurkeztu zuten uztailea hasieran egitasmoa. Egurrezko aulki erraldoia herriz herri ibili ostean —Alegia, Amezketak, Altzo, Betelu, Azkarate—, Tolosako Trianguloa plazara iritsi zen. Guillermo Olmo artista da aulkia egilea eta egitasmoaren bultzatzaileetako bat: «Aulkia elkartzeko elementua da». Gerora etorriko ziren uda osoan zehar Azkaraten bertan ospatutako kultur emanaldi ezberdinak.



TOLOSALDEA EKINTZAILITASUNAK GORANZKO JOERAN JARRAITU DU

Azken bi urteetako goranzko joerarekin jarraituko zuen aurten berriro Tolosaldeak ekintzailetasunari dagokionez. Ekintzaile ugari gerturatu dira urtean zehar Tolosaldea Garatzen garapen agentziara, eta iazko epe berarekin alderatuta, enpresa gehiago sortu dira 2016an (guztira 23 enpresa berri). Urteko lehen sei hilabeteko datuak eskuan hartuta, guztira 110 pertsona gerturatu ziren Lehiberrira ekintzailetasunarekin lotutako kontsultaren bat egitera.



ORENDAIN KALE BASERRIA BERRITZEKO PROIEKTUA

Udalaren jabetza den Kale baserria eraberritu zutela jakinazi zuen udalak uztailea amaieran. Bertan bost etxebizitza egokituko zituzten, 80 eta 90 metro karratu bitartekoak. Lehiaketa fasea igarota eta aurreproiektua aukeratuta, bizitza horietako batean izena emateko aukera zabaldu zen uztailean eta iraila bitarte zabalik egongo zen. Orendaindarrek eta Tolosaldeko bizilagunek lehentasuna izango zuten Kale baserriko proiektuaren barruan.



BERASTEGI UDALAREN AURKAKO SALAKETA KENDU ZUEN URKIJOK

Uemara sartzeagatik jarritako salaketa kendu zuen Carlos Urkijo gobernu ordezkariak uztailea amaieran. Berastegiarekin batera, Zerain, Ea eta Dimak ere salaketa berdina jaso zuten. Berastegiko Udalak bide luzea egin behar izan zuen, epailearen sententziak alde izan arren, Urkijok helegitea jarri zuelako epailearen sententziaren aurrean. Uztailean berriz, epailearen sententzia kaleratu aurretik Urkijok berak kendu zuen jarritako salaketa.



TOLOSA PILI ZABALA LEHENDAKARIGAI IZATEKO HAUTAGAI


Uztailean jakitera eman zen Ahal Duguren sektore ofizialak aurkeztuko zuela Pili Zabala, GALEk eraildako Joxi Zabala tolosarraren arreba alderdiaren primarioetara. Alderdiak izena jakitera ematerako orduan, tolosarrak «bikain» ordezkatzeko zuela «herrialde justu, solidario eta inklusibo baten aldeko proiektu politikoa bat», baieztatu zuen.

tolosaldeko **ataria** 2017

bertso **jaialdia**



Andoni Egaña, Amets Arzallus, Iker Zubeldia, Oihana Iguaran,
Igor Elortza, Sustrai Colina **Gai jartzailea:** Amaia Agirre



**Urtarrilak 21,
larunbata
18:00 etan
Tolosako
Leidor antzokian**

Sarrerak 10 €

- Tolosa: Raku, Orbela, Kantabriko
 - Alegia: Route 33
- Villabona: Amasa kafetegia
- Zizurkil: Iriarte • Ibarra: Zubiaurre

Sarrerak atarikideentzat 8€

atarikide:

Egin zure erreserba
abenduaren 26tik urtarrilaren 5era bitarte.
Gehienez 2 sarrera bakoitzak.

Deitu edo idatzi:

943 65 56 95

atarikide@ataria.eus

Antolatzailea:
tolosaldeko **ataria**
107.6 fm • www.ataria.eus

Babeslea: Tolosako Udala
Laguntzaileak: Harituz, Lanku eta Mahala



AMASA-VILLABONA

SANTIO JAIETAN JASANDAKO ERASO SEXISTA SALATU ZUEN EMAKUME BATEK

Emakume batek Villabonako jaietan droga botatzea edarira salatu zuen, eta hurrengo goizean ospitalean esnatu zela. Tolosaldeako Koordinadora Feminista, Amasa-Villabonako Udala eta Onddo Gazte Asanblada Berdura plazan elkartzu ziren gertakizuna salatuzko. Tolosaldeako Koordinadora Feministako kideetako batek adierazi zuenez, «agerikoa da pertsona jakin batek edo batzuek maltzurkeriaz egintza dela. Ez dugu pertsona horien intenzioen berri, baina badakigu asmoa ez dela ona». Gainera, adierazi zuten horrelako ekintzetan emakumea izaten dela biktima, ia beti.



TOLOSALDEA

BI HILABETEKO EGONALDIAREN OSTEAN, AGUR FESTA

Uztailaren 1ean etorri ziren Tolosaldera Aljeriako errefuxiatu kanpamentuetatik 23 haur saharar. Uda Tolosaldean igaro zuten, eta joan aurretik, ordea, Agur Festa egin zieten urtero moduan abuztu amaieran, Tolosako Zerkausian. Bi hilabeteko egonaldia egin zuten harrerara familia edota Amasako aterpetxean. Tolosaldea Sahararekin elkartearen, Tolosako Udala eta beste hainbat udalen laguntzari esker da posible.



ZIZURKIL

HARITZA ZIZURKIL GOIKO PLAZARAKO AUKERATUA

Zuhaitz berria eskatzen zuen Zizurkil Goiko plazak, eta abuztuko festetako bi egunak aprobetxatuz, galdeketa egin zuen Zizurkilgo Udalak. Guztira 90 boto jaso zituzten: 30ek haritzaren alde egin zuten, 29k lizarra aukeratu zuten eta 18k pagoa. Udalak jarritako hiru aukeraz gain, artearen alde egin zuten bi boto ere jaso zirela adierazi zuen udalak. Gu-nea berritzeko lanak urte amaierarako hastea aurreikusten da.



TOLOSA

EUSKAL KULTURAREN BERPITZEA OSPATU ETA OMENTZEKO

1936ko abuztuaren 11n Tolosa hartu zuten frankistek, eta Ixaka Lopez Mendizabalen argitaletxea arpilatu, liburuak ostu eta plaza erdian erre zituzten. Tolosako Plaza zaharrean egindako liburuen erreketaren 80. urteurrena gogoratu zuen Tolosako Udalak, garaiko Lopez Mendizabal argitaletxearen parean. Euskal kulturaren berpiztea ospatu eta hori posible egin zuten gizon-emakumeak omendu zituzten ekitaldian.

Abuztuak opor usaina ekarri ohi du, eta baita berarekin batera festarako aukera ere.

Hasi hilabete hasierarekin eta amaiera bitartean, eskualdeko hamabost herritan ospatzen dira jaiak. Dantzak, kontzertuak, jokoak, kirolak, lehiaketak, jan-edanak... ezer ez da falta izan.

‘Tolosaldeko Ataria’-k ere parte hartu nahi izan zuen festetan kamerarekin hainbat une harrapatuz, ‘ataria.eus’ argazkiz elikatuz eta herrietako festak sarean zabalduz.



ALTZO



LARRAUL



BERASTEGI



IKAZTEGIETA



ALBIZTUR



BALIARRAIN



ORENDAIN



HERNALDE



ADUNA



ZIZURKIL



GAZTELU



BIDANIA-GOITZ



AMEZKETA



IBARRA



BERROBI



TOLOSALDEA
ESKUALDEKO LAU
ZERGAPEKOK MILIOI
BATETIK GORAKO ZORRA

Miloi batetik gora zor duten 237 zergapeko identifikatu dituzte Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek. Gipuzkoaren kasuan, 62 izeneko zerrenda argitaratu zuen irailan ogasunak, eta bertan eskualdeko lau enpresa ageri dira: Emusi SA (Irura), Gorostidi SA (Tolosa), Kortakua SL (Asteasu/Zizurkil) eta Papelera del Araxes SA (Tolosa). Guztira, Tolosaldeko enpresek 11.853.844,7 euroko zorra osatzen dute.

36



TOLOSALDEA
ORDIZIAKO AZOKA BEREZIAN, ESKUALDEKOEK SARIA

Irailako Azoka Berezian aipamen berezia jaso zuten Ibarako Montesek, Tolosako Aldaba Zahar baserriak, Baliarraingo Irabiazpi baserriko Eburne Jauregik —irudian— eta Gazteluko Usurburuko Axun Etxeberriak. Ganadu lehiaketan, Pirenaika arrazan, Abaltzisketako Zubeldi-Erdi baserriko Lourdes Urkia Aranak hiru lehen sari lortu zituen. Gazta Lehiaketan Joseba Intsausti artzain ordiziarak jantzi zuen txapela, eta Asteasun egoitza duen Okeletxe enpresak 8.000 euro ordaindu zituen gazta erdiagatik enkantean.



BIDANIA-GOITAZ
UDALETXKO
ARKUPEETAN
DESFIBRILADOREA

Irailan jarri zuen Bidania-Goiatzko Udalak desfibriladorea udaletxeko arkupeetan. Aparatua herritarren zerbitzura dago, eta beharrean gertatzen denak erabili ahal du. 30 herritar baino gehiagok parte hartu zuten martxoan antolatutako bihotz-birikak suspertzeko teknikei buruzko ikastaroan. Dena den, edozein istripu edo ezbeharren aurrean, lehenik larrialdi zerbitzuetara (112) deitu behar dela azaldu du udalak, desfibriladorea erabiltzeko argibideak jasotzeko.



ELDUAIN
ERROTAR ERROTA BERRESKURATZEKO LANEAN

Azken zortzi urteetan bost karobi berreskuratu dituzte Burdina taldeko kideek Elduainen eta horietako azkenean, Saleskoan, lanean ari zirela topatu zuten Errotazar. Ondare historikoa berreskuratzeko helburuarekin azulanean aritu dira Elduaingo Udalaren laguntzarekin. Errotaren paretak berreraiki dituzte, eskuineko errotapeko arkua berregin dute, eta datorren urtean, berreskuratze lanen hirugarren fasearekin hasiko dira.



IBARRA PIPERRAREN BUELTAN FESTA GIROA

San Bartolome plaza eta Emeterio Arrese parkea postuz beteta agertu ziren, beste behin, Ibarra, Azoka eta Piparra azoka berezian. Bertan, besteak beste, Euskal Herriko piparraren VII. topaketa edota Ibarroko Piparraren Euskal Herriko XII. Lehiaketa egin zituzten. Azken honetan, piperradarik goxoen Fermin Zubillaga eta Iñigo Olano ibartarraren izan zen, eta Pintxo lehiaketan, bosgarren aldiz jantzi zuten txapela piperradan bigarren geratu ziren Patxi Lago eta Jesus Orcajok.



TOLOSALDEA ELKARTU ETA ADIERAZTEKO MUGARIK EZ

Artista plastikoak, musikariak, bertsolariak, kirolariak, dantzariak... elkartu dira uda honetan Zaraten. Bedaio eta Azkarate artean dagoen naturgunea da, Aralarren parte dena, muga Gipuzkoa eta Nafarroa artean. Baina, muga baino, banatzen duen marra baino, elkartzeko eta artea adierazteko espazio bihurtu da uda honetan Azken Muga egitasmoaren bitartez. Antolatzaileak gustura azaldu dira ekimenaren harrera onarekin.



ZIZURKIL KUTXAZAIN BERRIA ATXULONDO KULTUR ETXEAN

Kutxabank-ekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz, Atxulondo kultur etxearen izkina batean jarri zuten kutxazain berria. Hitzarmenean gutxienez hiru urteko zerbitzua bermatzeko konpromisoa hartu du Kutxabank-ek. Joxe Mari Luengo alkateak azaldutakoaren arabera, «herriak zerbitzu bat ez galtzea eta bertako merkataritzaren bizitza» lehenetsi dituzte. Urte hasieran kendu zuen Kutxabankek herriko kutxazain bakarra, eta udalak «inolakako jakinarazpenik gabe kendu izana» salatu zuen.



TOLOSA TOPIC ZENTROARI EMANDIOTE GALICREQUES SARIA

Txotxongiloen munduan lan egiten duten erakunde, enpresa edo pertsonen artean banatzen duten saria da. Txotxongiloekin soilik lan egiten duen Europa osoko leku bakarra, eta irudimena, berrikuntza eta originaltasuna dituztela oinarri nabarmendu zituzten Tolosako zentroari saria emateko. Halaber, mundu osoko artisten topagune ere bihurtu dela nabarmendu zuten. Santiago de Compostelako XXI. Galicreques nazioarteko jaialdian jaso zuten saria.



IBARRA KIROL ELKARTEAK 50. URTEURRENA OSPATU ZUEN

Urriaren 27an mende erdia bete zuen Ibarra kirol elkarteak. Hori dela eta urriko azken asteburuan hainbat ekitaldi izan zituzten. Sorrerako egunean bertan, fundatzaileei omenaldia egin zieten, eta elkartearen lehen egun hartan ateratako irudia baliatuz, gaur egungo argazkia atera zuten elkarteko kideek. Horrekin batera, garai bateko Ibarra erakusten zuen argazki erakusketa jarri zuten kultur etxean. Luistarren kuadrillan du sorburua elkarteak.



ADUNA, ZIZURKIL ETA ASTEASU 'SASETA DEFENTSA SISTEMA', ARGITARA

Saseta defentsa-sistema: armatutako erresistentzia antifaxista Adunan, Asteasun eta Zizurkilen liburua aurkeztu zuten «egiaren printzipioa» bete asmoz. 1936ko abuztua eta irailean Andatzaren magalean, uztailaren 18ko altxamendu faxistan parte hartu zuten militar kolpistei aurre egiteko defentsa sistema da Sasetakoa. Karlos Almorza eta Jabi Bucés ikerlariek eginiko lanaren ondorioa da argitalpena.



TOLOSA XABIER OLARRAK JASO ZUEN ITZULPENAREN EUSKADI SARIA

James Joycek 1922. urtean argitaratutako *Ulysses* lana euskarara ekartzeagatik eman zioten saria Xabier Olarra Lizaso itzultzaile eta editore tolosarrari. 2015ean argitaratu zuen *Ulises* (Igela) eta epaimahaikideek Olarraren lana goraipatu zuten. «Obra hau euskaraz edonola ematea ere, ez zen dema makala, baina auzo-erdatetako bertsoiak berdintzen eta inoiz are gainditzen dituen egokitasun miragarri batez emana datorkigu itzulpen honetan», esan zuten.



IRIARTE
JATETXEA

- Eguneko menua
- Astebukaerako menua
 - Kartia
- Haragia eta arraina parilan

Pedro Mari Otaño plaza, 1 • ZIZURKIL • 943 692 537



TOLOSALDEA 'ATARIA'.EUS DA, GU ERE EUSKARA GARA

ATARIA-k .eus domeinua du urriaren 28az geroztik. .eus Interneten nabigatzeko marka bat da, baina baita hori baino gehiago ere. Komunitate bat badagoela eta zer eskainia baduela adierazten duen marka da, eta ATARIA ere komunitate horretako parte da. Euskararen normalizazioan parte aktiboa da, eta hori dela eta domeinu berria estreinatu zuten duela bi hilabete. 6.000 webgune baino gehiagok egin dute .eus-en alde.



TOLOSALDEA ARALARKO PISTEN AFERA BEROTZEN HASI ZENEKOA

Urriaren azken egunetan azaldu ziren ekologista zein natur taldeak Aralarren egiten ari diren pisten aurka. Landarlan natur taldeak agerraldia egin zuen, eta Enirio-Aralarko Mankomunitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako Saltarriarako pista proiektuaren kontra azaldu ziren. Era berean, mankomunitateko Batzar Orokorra egon zen eta EH Bilduko hainbat ordezkari koalizioan aurretik hartutako erabakia ez zuten bete.



IRURA XABIER ARTOLA ETA ANE URRUZOLA, SARIDUN

Euskal Herriko 40. Dantza Txapelketa egin zuten Seguran eta puntu gehien lortutako bikoteetako bat eskualdekoa izan zen, Irurako Xabier Artola. Pasaiaiko Idoia Besadarekin osatu zuen bikotea. Bigarren postuan geratutako bikotean ere bazen eskualdekorik, Villabonako Ane Urruzola. Lezoko Iker Sanz izan zuen lagun. Artola eta Besadak Gipuzkoar Onenen Saria eta hobekien jantzi-tako bikotearen saria ere irabazi zituzten. Iruran omenaldia jaso zuten.



TOLOSA ZORTZI PROIEKTUREN ARTEAN ERABAKITZEKO AUKERA

Amaroztarrek 1,1 milioi euroko aurrekontua dute auzoa hornituko duen ekipamendu eta azpiegiturak hautatzeko. Diru hori gastatzeko zortzi proiektu jarri dizkiete mahai gainean. Auzo-etxea eta anbulatorioa berregokitzea, espaloiak eta asfaltoa hobetzea, haur parkeak eraberritzea, erabilera anitzeko gune estali bat egitea, bolatokia berregokitzea, frontoia estaltzea, merkataritza indartzea eta komun publiko bat egitea dira aukeran dituzten proiektuak.



LARRAUL LIHOAREN INGURUKO LANKETA EGIN ZUEN DINA 7 TALDEAK

Larraulgo Ekomuseoa kudeatzen duen Dina 7 kultur elkarteak emakumezkoen ofizio zahar bat berreskuratzeko lana egin du aurtengoa; lihoaren ehungintza. Kattilutxulo mendian linu-putzua aurkitu ondoren abiarazi zuten proiektua. Taldearen nahia prozesu guztia berreskuratzea da eta horregatik, lihoa erein zuteneko uzta beratzen jarri zuten topatu zuteneko linu-putzuan bertan. Lihoaren hariekin egiten ziren garai batean jantzi asko.

TOLOSALDEA BOST URTEOTAKO BIDEA ETA AURRERA BEGIRAKOAK, TOPA-K

Azaroan zuen epemuga, 2011. urtean Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak eta Invizak sinaturiko hitzarmenak. Urte hartan bertan piztu zen, Tolosaldean, osasun sistemaren kudeaketa aldatzeko gizarte mugimendua eta, beren aldarrikapen txanparik garrantzitsuenari iritsi zen azaroan. Horrela, TOPA koordinakundeak azaroa bete zuten eskakizun eta protesta agerraldiekin. «Oso une garrantzitsuan gaude, jokoan baitago guk eta gure familiek jaso behar dugun osasun arretaren eredu».

TOLOSA 'TOLOSATZEN' PROZESUA AURRERA BEGIRA

Apirilean ekindako parte hartze prozesuak, *Tolosatzen*-ek, azaroarako bete zituen lehen bi faseak. Udalak liburuxka argitaratu zuen jasotako ekarpenekin: *Tolosaren 2016ko Argazki Partekatua*. 500 ale banatu zituzten herritarren artean eta webgunean ere informazioa eskura egon zen. Hilabete zehar bi saio gehiago ere egin ziren, proiektu zehatzak erabakitzeko. Horrela, esparruz esparru Pertsonak; Kultura eta Hezkuntza; Ingurumena eta Lurralde Antolaketa eta azkenik, Ekonomia Ildoetatik abiatuta 2017. urteko aurrekontuan txertatzeko jarduerak erabakiko ziren.

TOLOSA KONTSUMOA MURRIZTEKO ENERGIA MAHAIA MARTXAN

Piztu Tolosaldea diseinatu zuten 28 udalek, Tolosaldea Garatzenekin batera, eta emaitza kezagarriak eman zituen 2015eko energia diagnosiak. Tolosaldeko energia kontsumoaren %87 erregai fosiletan oinarritzen da eta, horrez gain, menpekotasuna %98koa da: alegia, kontsumitu beharreko energia hori guztia kanpotik ekarri behar izaten da. Energia Mahaia sortu eta ekintza plana abiarazi zuten azaroan «energiaren kontsumoa murriztu eta kontzientzia handitzeko» helburuarekin.



TOLOSA HOGEITA HIRUGARRENEZ, TOLOSA GOXUA

Gozoa. Horixe izan zen nagusi azaroako lehen larunbatean Tolosan. XXIII. Tolosa Goxua azoka egin zuten Trianguloa plazan. Hiru karpa handi, bakoitza bere zereginetan, baina denetan protagonista berdina: gozoa. Sagar tarta lehiaketan Maritxu Astiasaranekek polsikoratu zuen 240 euroko saria. Eta jendar tean banatzeko gozoa ere izan zen protagonista: 4.000 pitxi-pitxi baino gehiago banatu zituzten.



TOLOSA INDONESIARA ABESBATZA LEHIAKETAKO TXAPELA

Tolosako 48. Abesbatza Lehiaketa amaituta, Indonesiako Batavia Madrigal Singers abesbatzak lortu zituen Sari Nagusiaz gain, folklorea eta polifoniako txapelak. Lorpen horiei esker, 2017an Tolosan egingo den Europako Abesbatzen Sari Nagusirako izendapena lortu zuten. Vocalia euskal abesbatzak ere maila ona eskaini zuen, lau aldiz sariak jasotzera igoz Leidorreko taula gainera.



TOLOSA BIZIKIDETZA FOROA LITERATURATIK EDANAZ

Azaroan Tolosako Bizikidetza Foroak hitzordu berezia ekarri zuen. Orduan, Aingeru Epaltza, Laura Mintegi eta Harkaitz Cano izan ziren Tolosako udaletxeko pleno aretoan aulki librerik geratu ez izanaren errudunak. Memoria Egunean jarri zuten hitzordua eta memoriaz aritu ziren hiru idazleak. Memoriaz eta literaturaz, eta gatazkaz; kontzeptu bakanez, eta euren arteko uztartzeaz.



IBARRA MAMITU BEHARREKO ELKARTASUN IRUDIA

1995. urtean Ibarra emakume talde batek emakume bat bortxatzen saiatu zen gizona lanean zegoen aldamiotik jaitsi eta epaitegira eraman zuten, eraso onartzera behartuz. Irudi horrek 21 urte betetzen zituela aprobetxatuta TOLOSALDEKO ATARIA-k Indarkeria Sexistaren Aurkako Eguna jomugan, hilabete osoan zehar, parekidetasuna lantzeko erreportaje sorta osatuko zuen.

BALIARRAIN HIRU EGUNEZ KULTUR ASTEBURU BOROBILA IZAN ZUTEN

Eskualdeko herri askotan bezala, udazkenaren etorrerarekin batera, kultur asteak ez ziren falta izan. Adibide horietako bat izan zen Baliarrain. Berezia izan zen aurtengoa larunbateko ekitaldi guztiak Lopetedi baserrian izan baitziren. Izan ere, Agurtzane Garmendia herritarrek egitasmoak antolatzeko martxan jarri zuen Heu&Neu enpresa, egoitza Lopetedi baserrian duena. Adibidez, bertan izan ziren Lander Egia bidaiari tolosarra bere esperientzia azalduz, afari-merienda eta Etxeren kontzertua.

TOLOSA URRETABIZKAIA GUDARI TOLOSARRA GOGOAN MARKINA-XEMEINEN

Markina-Xemeinen 36ko gerran erail zuten Bittor Urretabizkaia, Timoteo Arrastoarekin batera. 1936ko azaroaren 21ean hil zuten, Elgoibar eta Markina-Xemein artean dagoen Kalamua mendian. Azaroa amaieran omendu zituzten biak, hilobiratu zituzten auzoan, Barinagan. Markinaldeko frontean gertatutakoak ikertzen dituen Ahaztuen Oroimena taldeak antolatutako ekitaldia izan zen. Bi gazteen familiak eta herritar ugari gerturatu ziren omenaldira eta bi gudariei buruz orain arte bildutako albiste, dokumentu eta testigantzak plazaratu zituzten.

AMASA-VILLABONA URTEROKO HITZORDUA AIZKARDIRENTZAT ARGAZKI RALLYA

Aizkardi Mendi Elkartearen 33. Mendi Astearen barruan urteroko hitzordua izaten da argazki rallya. Aurtengo parte hartzaileek amankomuneko gai bat izan zuten argazkia ateratzerakoan: ura. Lan guztiak gainera ikusgai egon ziren Gurea zine aretoko sarreran. *Urezko tantak* argazkiak jaso zuen argazki onenaren saria; publikoak aukeratutako argazkirik onena *Nat...ura* izan zen. Eta, bigarren eta hirugarren sariak berriz, hurrenez hurren, ondangoak izan ziren: *Islada* eta *Sarea*.



Limousin etxearen atarian egindako eserialdearen ondorioz, isun ekonomiko handiak iritsi zaizkie hainbat gazteri eta bi gazte auziperatu dituzte. M. IRAOLA

Gaztetxea lortzeko borrokan

42

Tolosako Gazte Asanbladak gaztetxea lortzeko hainbat saiakera egin ditu aurten; ez du fruiturik lortu oraingoz

Gaztetxe baten aldeko borroka luzea izan da aurten Tolosan. Tolosako Gazte Asanbladako kideek beren ekintzak burutzeko gune autogesionatu baten beharra ikusita, gaztetxea lortzeko borroka jarri zuen abian. 2015eko uztailean abandonatutako etxe bat okupatu zuten Larramendi auzoan; ertzaintzak hustu egin zuen segituan.

Tolosako Gazte Asanbladako kideek borrokan jarraitu zuten, eta Izaskungo aldaparen hasieran dagoen fabrika bat okupatu zuten 2015. urtearen amaieran. *Ezpala* izena jarri zioten guneari, eta egitarau zabala antolatu zuten 23 egunez. Urtarrilaren erdialdean, ordea, errepikatu egin zen eszena: ertzaintzak desalojatu egin zituen.

Gazte Asanbladako kideek salatu zuten ertzaintzak ez zuela «desalojo agindurik», eta salatu zuten udalak «aldebakartasunez» hartu zuela beraien desjabetzeko erabakia.

Limousin etxearen okupazioa

Ez zuten etsi gazteek. Gaztetxearen desalojoa salatzeko manifestazioa egin zuten urtarrilaren 16an. 200 lagun inguru bildu ziren, eta protestaren erdian Limousin etxea okupatu zuten –Tolosako Udalaren jabetza–. Hainbat gaztek giza-harresi bat osatu zuten eraikinarean atarian desalojoa saihesteko. Ertzaintzak eserialdian parte hartzen ari ziren 50 gazte identifikatu zituen. Horietako biri hiru urte eta bi hilabeteko kartzela zigorra eskatu diete, eta 600 eurorainoko isunak ailegatu zaizkie 50 gazteri Mozal Legea aplikatuta, Gazte Asanbladak salatu duenez. Gazte horietako batzuk *Gazteak Kanean* plataformaren baitan bildu dira, eta *Garden* plataforma ere sortu dute auziperatutako gurasoek.

Gazte Asanbladako kideek ertzaintzaren jarrera salatu zuten eta Tolosako Udalarari leporatu zioten egoera horretara iristeko «bidea libre utzi» izana. Era berean, eskatu zioten jarrera «eraikitzailea» hartu eta gazteen arazoak «konpontzeko».

Beste ekintza batean, ezezagunek simaurra bota zuten udaletxearen atarian, eta Tolosako udal taldeak gertae-

ra hori salatu zuen. «Lankidetzan oinarritutako» proiektua garatzeko «prestutasuna» azaldu zuen prentsa ohar baten bidez.

Beste okupazio saiakerak eta udalaren proposamena

Gazteek Topic Zentroaren ondoko eraikin bat okupatu zuten martxoan. Ertzaintza eta Udaltzaingoa bertaratu ziren segituan, eta hustu egin zuten. Egitarau zabala antolatu zuten, eta desalojoaren ondotik, Zerkausian jarraitu zuten ekimenekin. Norbanakoen eta eragileen sinadura bilketa ere jarri zuten martxan. Manifestazioa egin, eta Kultur Etxeko ganbara okupatu zuten egun gutxira. Orduan, Santa Luzia auzoko eraikin baten proposamena luzatu zien Udalak, eta adierazi zuten gazteen «erantzunaren zain» zedula. Gazteek, ordea, «ofizialtasun falta» ikusi zioten proposamenari, eta salatu zuten eraikina ez zela udalarena.

Gazteek beren «espazioak behar» dituztela aldarrikatu dute: «Ez da kapritxo bat; jendartean ezinbestekoa da gazteak ahalduntzea eta burujabetza praktikara eraman ahal izateko tresnak eskuratzea».



Irudian, maitasun erromantikoaren inguruko hitzaldia, topaketa feministen barruan. ANE URKOLA

Borroka feminista hauspotzen

Eskualdeko mugimendu feminista asko indartu da: emakume taldeak herrietan sortu eta saretzen ari dira

Euskal herri osoan ari da loratzen mugimendu feminista, eta Tolosaldea ere ez da salbuespena izan aurren. Eskualdeko emakume gazteak sistema kapitalista eta heteropatriarkatuak sortzen dizkien zapalkuntzez kontzientziatu eta horiei aurre egiteko lanean ari dira.

Apirilean hasi zen gorpuzten eskualdeko mugimendu feminista. Tolosako gazte mugimenduko hiru kidek deialdia egin zieten eskualdeko emakumei, «Tolosan emakumeek zuten parte hartzea txikiarekin kezkatuta». Erantzuna handia izan zen: eskualdeko hainbat herritako emakumeak gerturatu ziren bilerara, eta hainbat herri-

tan emakume taldeak sortzeko aukera ikusi zuten.

Hori horrela, Tolosan, Anoetan eta Ibarako herrietan emakume taldeak sortu ziren. Ez ziren lehenengoak izan, ordea; horiez gain, Villabonako *Irmo* talde feminista eta Zizurkilgo *Aizan* talde feminista ere martxan zeuden dagoeneko.

Hasieratik ikusi zuten talde bakoitzaren beharrak eta lehenetsunak ezberdinak zirela. Horregatik, talde bakoitza modu autonomoan aritu da lanean. Beren ekintza propioak egin dituzte, herri bakoitzean kontzientziak astindu eta gai zehatz batzuk mahai gainean jartzeko. Azpimarragarrienak dira, esate baterako, emakume taldeek beren herriko festetan egindako ekintzak eta antolatutako hitzaldiak, mahai inguruak edota tailerrak, baita Ibarako Emakume Taldearen I. topaketa ere.

Elkarteen aurkako pintadak agertu ziren eskualdean

Elkarreak ere gureak dira, Ateaga matxista! lelopean egin zituzten pintadak Anoetako elizaren ondoan. Ateaga elkarreak ez diete uzten emakumei bazkide izaten, ekintzaren egileek salatu zuten. Tolosako hainbat elkartetan ere pintadak agertu ziren ekainean, «matxistak» lelopean.

Bi emakume drogratu eta bahitu dituztela salatu zuten

Ibarako Gazte Festetan bi emakume drogratu eta bahitu zituztela salatu zuten Ibarako Gazte Asanbladak eta Ibarako Emakume Taldeak. Hiru orduko denbora tartean ez zirela ezer-taz oroitzen adierazi zuten gazteek: «Kontzientzia berreskuratzen ari zirela, ibilgailu batetik bota zituzten guztiz desorientatuta, Ibarratik at».

Mugimendu feminista saretzen

Elkar batuta, ordea, indar gehiago egingen omen da, eta eskualdeko emakume taldeek ere garrantzitsutzat jo dute beren arteko harremanak garatu eta elkarren artean saretzea. Horren erakusle dira urtean zehar elkarrekin antolatu dituzten hainbat ekintza. Esate baterako, brigada feministak egin dituzte Tolosako, Ibarako eta Irurako festetan, emakumei etxera laguntzeko.

Era berean, hainbat formakuntza saio ere antolatu dituzte, azaroan antolatutako topaketa feministak esaterako. Hainbat hitzaldi eta mahai inguru antolatu zituzten asteburu osoan, eta hamaika gai izan zituzten hizpide: maitasun erromantikoa, transexualitatea, postpornoa eta Euskal estatu feminista, besteak beste.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren ideia txikitatik entzun dute eskualdeko gazteek. Beren azalean jasan dituzte, ordea, emakume izateak dakartzan zapalkuntzak. Kate horiek askatzeko ezinbestekoa izan dute denek feminismoa. Jarrai dezatela borrokan; beraiek soilik ez, feminismoak egingo baitu aske jendarte osoa.

Eraso sexista bat egin zioten emakume bati inauterietan

Zaldunitan emakume bat erasotu zuten, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailak jakinarazi zuenez. Gizonezko bat emakume batengana gerturatu, eta ukituak egin zizkion. Andreak bultzaka gainetik kendu zuen gizona, baina hura itzuli eta berritoe egin zizkion ukituak. Elkarretaratzea egin zuten eraso salatzeko.



TOLOSALDEA ABENDUAREN 3A EUSKARAREN EGUNA OSPAKIZUNEZ BETEA

Eskualdea herriz herri zeharkatu eta ez zen gelditu udalerrri bat bera ere Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu gabe utzi zuenik. TOLOSALDEKO ATARIA-k ere data aitzakia hartuta, albiste eta erreportaje sorta osatu zituen. Horien adibidea da Garikoitz Goikoetxeari egindako elkarrizketa *Euskara irabazteko bidean* liburuaren harira. «Justizia sozialaren terminoetan planteatu behar dugu euskararen egoera», esan zuen kazetari elduindarrak.



BELAUNTZA MARIANO LAZKANO BELAUNTZAKO ALKATEAREN HERIOTZA

Bihotzeko bat izan ondoren zendu zen Mariano Lazkano Belauntzako alkatea, 64 urterekin, abenduaren 1etik 2rako gauean. Denok Bat plataformako kidea zen Mariano Lazkano, eta alkate bezala hirugarren legealdia zuen. Azken udal hauteskundeetan lau hautetsirekin gehiengoan lortu zuten Udaltzatzen. Abenduaren 24an ez ohiko osoko bilkuran izendatu zuten herriko alkate berria: Silvia Moneo Cid. Aho batez izendatu zuten Denok Bateko kidea.



TOLOSA HARAGIAREN TENPLU BIHURTU ZEN BESTE BEHIN

Hamargarren urtez, Tolosako Zerkausia erretegi erraldoi bilakatu zen Txuleta Festaren aitzakian; txuleta gain, haragia gurtzeko modu berriak ere eskaini zituzten, bigarrenez, zizka-mizka guzuzen. Honetaz gain, hainbat hitzaldik mamitu zuten X. Txuleta Festa. Adibidez, *Haragiaren heldutasuna*, Carnicas Goyak eskaini zuena edo *Parrilla Tolosan*, Casa Nicolas erretegiako Pedro Ruizek Sonia Tapiarekin eskainitakoa. Umeentzako tailerrak ere izan ziren.



DANI BLANCO / ARGIA

TOLOSALDEA AURKAKOTASUNAREKIN, ERRAUSTEGIA EGIN ETA KUDEATZEKO LANAK LIZITATUTA

Otsaila erdialdera aurkeztu zen Aiztondoko Erraustegiaren Aurkako plataforma eta Zubietan eraiki asmo den azpiegitura «mehatxu larritzat» hartu zuten, herritarren osasunean «eragin larriak» izan ditzakeelako. Erraustegiaren aurkakoek salatu dutenez «35 urtez Gipuzkoako ekonomia hipotekatu du» –2051. urtera bitartean ia 66 milioi ordaindu beharko ditu Tolosaldeak—. Auzitegiaren jarritako helegiteak ebatzi aurretik, GHK-k abenduaren 27an egin zuen lanen lizitazioa. Urbaser enpresa taldeak egingo du Zubietarako proiektua.



TOLOSALDEA 15 URTEKO LANAK, IA 4.000 ZENBAKIKO FRUITUA

Abenduaren 18an 15 urte bete ziren Tolosaldeko euskarazko lehen egunkariaren lehen zenbakia argitaratu zenetik. *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxieraren ondorioz, egunkari nazional izatera pasa behar izan zuen *Egunero*-k. Proiektu hura eredu hartuz sortu ziren, ondoren, eskualdeetako *Hitza*-k. *Egunero* jaio bitarte Tolosaldean informazioa euskaraz lantzeko proiektu batzuk martxan jarri baziren ere, mende hasierarekin bultzada jaso zen proiektu honekin.



TOLOSA ZORTZI HAMARKADEN ISILTASUNA ENTZUTEKO UNEA

Ixilduen Oihartzunak, 1936–2016 egitasmoa burutu zuten Tolosan abenduan zehar. Espainiako gerra hasi zenez geroztik gaurdaino, 80 urte pasatu dira. Hamarkada horiei guztiei begira jarri, eta urteek plazaratu ez dituzten bizipenak argitara ateratzeko helburuz, Tolosako herritar talde batek *Ixilduen Oihartzunak, 1936–2016* egitasmoa jarri zuen martxan. Hitzaldi, dokumental, inaugurazio nahiz kaleko hitzaldiak izan ziren astebetez, Tolosan.



IBARRA MARTXOTIK AURRERA, EDUKIONTZI BIDEZKO BILKETA SISTEMA

Ibarrako udalbatza osatzen duten EH Bildu eta EAJ alderdiek akordioa sinatu zuten, hiri hondakinak biltzeko sistema aldatzea adostuz. Akordioaren helburua gaikako bilketa %80tik gorakoa izatea izaki, derrigorrezkoa eta kontrolatua izango da bilketa. Udal arduradunek 2014. urtean atez ateko sistemarekin zuten helburu bera mantenduko dute: «Hondakinak murriztu eta berrerabilera bultzatzeaz gain, gaika ahalik eta gehien biltzeko sistema bat jartzea».



TOLOSALDEA ENIRIO-ARALAR, EZTABAIDARAKO GAIA

Urteak utzitako eztabaidagai nagusietako bat da Enirio-Aralarren kudeaketa. Pistak bai edo ez, eztabaida, zergatiak, ikuspuntuak... Urteari amaiera emateko, abenduaren 20an, Ordiziako udaletxean egindako Enirio-Aralar Mankomunitatearen osoko bilkuran Kudeaketa planari baiezkotza eman zion Mankomunitateak eta Eniriotik Igaratza arteko oinezkoen bidea ibilgailuentzat ere onartu zuten osoko bilkuran. Eztabaidak indarrean jarraituko, egun horretan bertan ere, udaletxe kanpoan pisten kontrako elkarretaratzeak izan ziren.



ZIZURKIL
ALBERDI, ESPAINIAKO
TXAPELDUN

Junior mailako Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak irabazi ondoren, urtarri-laren 10ean Espainiako irabazi zuen Jokin Albedik, Torrelavegan. Zizurkildarrek ondoren munduko txapelketan parte hartzeko aukera izan zuen.



TOLOSA
IMANOL ROJO
EUROPAKO TXAPELDUN

Distantzia luzeko txapelketa Bereten jokatu zen otsailaren lehen asteburuan. Imanol Rojok 30 km librean eta 42 km klasikoan lehenengo amaitu zuen. Bere anaia Joseba Rojok hirugarren eta bosgarren postuak lortu zituen.



IBARRA
SOKATIRA TALDEA
MUNDUKO
TXAPELKETAN

Goma Gaineko Munduko Sokatira Txapelketa Herberheetan jokatu zen otsaileko hirugarren astean. Ibarren izenean bi domina lortu zituzten, eta Euskal Herriko selekzioarekin, hiru.



TOLOSA
O'TOOLE MUNDUKO
AIZKOLARI AZKARRENA

Tolosako Beotibar pilotalekuan Munduko Aizkolari Azkarrenaren Txapelketa jokatu zen otsailaren 21ean. Azkarrena Lawrence O' Toole izan zen, Iker Vicenteren aurretik. Joseba Otaegi zizurkildarra finalaren atarian geratu zen.



IBARRA
UNAI OTAÑOREN
AGURRA

Ibarrako aizkolariak agur esan behar izan zion aizkolarari, gerriko minen ondorioz. Senide, lagun, herritar eta aizkolariek omenaldia egin zioten martxoaren 12an Ibarrako plazan, herri kirol erakustaldi baten bidez.



TXIRRINDULARITZA
IRIBAR ETA LARRARTE
ESPAINIAKO KOPAN

Unai Iribar ibartarrak eta Eukene Larrarte tolosarrak Espainiako Pistako Kopa irabazi zuten, martxoan. Hiru jardunaldiko kopa izan zen, eta azken probak Tafallan jokatu ziren. Eskualdekoek Euskadiko selekzioa ordezkatu zuten.



IBARRA
ANDRES ARAMENDIREN
HERIOTZA

Tolosaldean pilotaren alde hamarkadetan lanean aritu zen ibartarra martxoaren 28an hil zen 72 urterekin. Tolosako Aurreran, Aurrera-Saiazen eta pilota epaile bezala ere ibili zen Aramendi.



ANOETA
TOLOSAREN BIGARREN
TXAPELA

Iruñako Labrit pilotalekuan Xabi Tolosak Promozioiko Binakako Pilota Txapelketa irabazi zuen Gorka errioxarrarekin 22-11 irabaziz Agirre eta Larunberi. Anoetarraren bigarren txapela zen.



TOLOSA
IRATI LAKUNZAREN
MUNDU MAILAKO URREA

Martxoan eta uztaian Espainiako errekorak hautsi zituen Irati Lakunzak. Apirilean, Munduko Kopako IV. jardunaldian urrea lortu zuen Igarondoko kideak, hegats-igeriketan, 400 m eskafandran.



TOLOSA **IGARONDO URPEKOEN** **35. URTEURRENA**

Tolosako Gure Kaiola elkartean bildu ziren Igarondo Urpekoak taldeko kideak, apirilaren 16an. Guztira 50 bat kide inguru izan ziren. Mahaiaren bueltan bazkaldu zuten, urte horietako ibilbidea errepasatuz.



TOLOSA **EGOITZ ZALAKAIN** **EUSKADIKO TXAPELDUN**

Aizarnazabalen Euskadiko eta Gipuzkoako Duetloi Luze Txapelketak jokatu ziren apirilaren 23an. Tolosarra izan zen helmugan lehena, beraz, bi txapelak berarentzat izan ziren. 14 km korrika, 72 bizikletaz eta 7 korrika egin zituzten.



TOLOSA **GOAR ARTETXEREN** **AGURRA**

TAKE-ko jokalarri beteranoak agur esan zion saskibaloijokalarri izateari, 29 urte eta gero. Taldekide eta zaletuek omenaldia egin zioten bere azken partidari, maiatzaren 9an. Egun, Zarautzen entrenatzailea da, EBA Ligan.



TOLOSA **LASKORAIN TXAPELDUN** **HIRUGARREN MAILAN**

Laskorain Ikastola areto futbol taldeak Hirugarren Mailako liga irabazi zuen maiatzaren 7an, Bigarren B Mailara jauzi egiteko eskubidea irabaziz. Ondoren, orde, igoerari uko egin zion talde tolosarrak.



TXIRRINDULARITZA **ZORTZI ORDEZKARI ETA GUZTIAK DOMINEKIN**

Martxoaren amaieran Espainiako Pistako Txapelketak jokatu ziren Valentzian. Kadete eta jubenil mailako txirrindulariak izan ziren bertan. Tolosaldetik zortzi joan ziren Euskadiko Selekzioarekin. Guztia dominekin itzuli ziren: Eukene Larrartek bost domina, lau urrezko eta brontzezko bat; Luis Mari Garikanok hiru domina, bi urrezko eta zilarrezko bat; Julen Dorronsorok brontzezkoa; Naia Amondarainek zilarrezkoa; Maddi Amondarainek hiru domina, bi brontzezko eta zilarrezko bat; Iñaki Muruak zilarrezko bat eta brontzezko bat; Arantxa Garikanok brontzezkoa eta Unai Iribarrek urrezkoa eta zilarra.



BALIARRAIN **ENEKO GARMENDIA** **GIPUZKOAN NAGUSI**

Gipuzkoako Lokotx Biltze Txapelketa irabazi zuen Eneko Garmendiak maiatzaren 8an Legorretan. Baliarraindarrak lortzen duen zazpigarren txapela izan zen. *Boli* bigarrena izan zen.



TOLOSA **NEREA IZAGIRRE** **REALERA**

Nerea Eizagirre 16 urteko gazteak Realarekin fitxatu zuen maiatzean. Erdilaria Tolosa CF-ren jokalarri bezala hasi baldin bazen ere, azken bi urteetan Añorgan zegoen.



TOLOSA **TOLOSA CF** **HIRUGARREN MAILARA**

Maiatzaren 22an denboraldiko azken partida galdu arren, Real Unionen aurka, tolosarrek Hirugarren Mailarako igoera lortu zuten. Ospakizunak Irunen bertan hasi zituzten urdinekin.



LIZARTZA
OLAETXEAREN AGURRA

Maiatzaren 22an Mikel Olaetxea lizar-tzarrak agur esan zion pilotari profesional izateari. Bere ibilbideko azken partida Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu zuen aurrelariak. Albisu lagun zuela jokatu zuen azken partida, garaipena lortuz.



TOLOSA
TOLOSA ESKUBALOIA
ZILARREZKO MAILARA

Liga irabazi ondoren igoera fasea jokatu behar izan zuen Tolosa CF Eskubaloi taldeak. Usabal kiroldegian jokatu ziren partidak, maiatzeko azken asteburuan. Lau talderen artean postu bat zegoen jokoan, etxekoek lortu zutena.



TOLOSALDEA
XIV. ORDUEN URTEA

Lau urtetik behin XIV. Orduak ospatzen dira Tolosaldeko hainbat herritan barrena. Olinpiar urtearekin bat egiten duen mendi ibilaldia izanik, 2016an izatea tokatzen zitzaion, eta maiatzaren 29an ospatu zen. Aurtengoa XVI. edizioa izan zen.



AMASA-VILLABONA
BEHAR ZANAREN
70. URTEURRENA

Ekainarekin batera Villabonako elkartearen urteurreneko ospakizunak etorri ziren. Pilota jaialdi oparoa antolatuta zuten Behar Zanakoen, horien artean, ekainaren 5ean jokatu zen errebote partida, heldu eta gazteen artean.



LEABURU-TXARAMA
JON IRISARRI
PROFESIONALETARA

Caja Rural Seguros RGA taldearekin sinatu zuen ekainean txirrindulari leaburuarrak. 23 urte azpikoetan denboraldi borobila egiten ari zen Irisarri, besteak beste Legazpiko Klasika eta Bidasoako etapa erregina irabaziz, maiatzean.



TOLOSA
CARLOS PEÑAREN
MUNDUKO ERREKORRA

4.880,30 kilometro egin ditu igerian, bizkarrez, tolosarrak bere ibilbide osoan zehar. Official World Record erakundeak munduko errekortzat hartu zuen ekainean Peñaren balentria. Lehen proba 1989. urtean egin zuen.



TOLOSA
CAMINOS BIGARREN
MUNDUKO KOPAN

Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun, Les Menuiresen, Frantzian, bigarren Munduko Trial Kopa jokatu zen uztailean. Irene Caminos, 17 urteko tolosarra, bigarren sailkatu zen.



ASTEASU
LOPETEGI ESPAINIAKO
HAUTATZAILA

Julen Lopetegi Espainiako Selektzioaren hautatzaile izendatu zuten uztailearen 21ean. Vicente del Bosqueren lekua hartu zuen entrenatzaile eta atezain ohiak.



IBARRA
GARMENDIA ETA
DOYHARZABAL,
HIRUGARREN EUROPAN

Uztailearen 20tik 24ra Europako Abentura Raid Txapelketa jokatu zen Aran bailaran. Ibartarrak Euskal Raid-Aralar Kirolak-ekin hirugarren geratu ziren.



TOLOSA **KONTXAKO BANDERA,** **PEREZ ETA** **LARRAÑAGARENTZAT**

Nerea Perez eta Irati Larrañagak Kon-txako Bandera irabazi zuten Donostiako uretan, irailaren 11n. Patrioiak eta arraunlariak San Juanekin lortu zuten bandera bi jardunaldiren ondoren.



TOLOSA **MIKEL ARRUABARRENA** **TXIPRERA**

Eibartik Huescara eta Huescatik Hong Kong-era abiatu zen futbolari tolosarra. Baina Asiako bidaiak ez zitzaion ondo atera, eta iraila hasieran, AEL Limassol Txipreko taldearekin sinatu zuen bigarren hitzarmena.



TOLOSA **LARA ARRUABARRENA** **KOREAN TXAPELDUN**

Irailaren 25ean Koreako Irekia irabazi zuen tenislari tolosarra. Finala Monica Niculescu errumaniarraren aurka jokatu zuen Arruabarrenak, eta 6-0; 2-6 eta 6-0eko emaitzarekin irabazi zion. Bere ibilbideko bigarren garaipena izan zen.



PILOTA **JON ANDER PEÑA ETA** **JON ERASUNEN DEBUTA**

Tolosako Beotibar pilotalekuan debutatu zuten bi pilotariek, Asegarcerekin. Peña II.ak urriaren 8an eta Erasunek azaroaren 5ean. Aurrelariak Albisurenekin osatu zuen bikotea estreinekoan, eta atzelariak Victorrekin.



AMASA-VILLABONA **HASSAN AIT CHAOU-REN** **DENBORALDI BOROBILA**

Skyrunning World Series urrian amaitu zen. Zortzigarren eta azken lasterketa Italian izan zen. Hassan Ait Chaouk zazpigarrena irabaztea lortu zuen, Big Sky Montana (AEB). Saillapen nagusian bigarren geratu zen billabonatarra.



ZIZURKIL **JOSEBA OTAEGI** **BIGARREN**

Urriaren 23an jokatu zen Euskal Herriko Lehen Mailako Aizkolari Txapelketaren finala, Bilbon. Aitzol Atutxak jantzi zuen txapela 44 minutu eta 47 segundoko denborarekin. Bigarrena Otaegi zizurkildarra izan zen, Larrañagaren aurretik.



LIZARTZA **ERIK JAKA PROMOZIO** **MAILAN TXAPELDUN**

Azaroaren 20an, Logroñoako Adarra pilotalekuan irabazi zion lizartzarrak Lau t'erdiko Promozio Mailako finala Dariori. 22-10 izan zen azken emaitza, lehen mailarako txartela lortuz.



AMEZKETA **JOKIN ALTUNAREN JAUZIA**

Apirilean hasi eta maiatzean bukatu zen lehen mailako buruko pilota txapelketa. Jokin Altuna finalerdietara iritsi zen, Urrutikoetxearen aurka 22-6 galduz, Bilbon. Udako txapelketetan, txapela gehien lortu zituen pilotaria izan zen, laurekin. Horrez gain, sei finalerara iristea lortu zuen amezketarrak. Urtea amaitzeko lehen mailako Lau t'erdiko Txapelketa tokatzen zen, eta bertan handia egin zuen Altuna III.ak. Txapelkunorde gelditu zen, finalen 22-21 galdu ondoren Bengoetxearen aurka, Ogetan, azaroaren 27an.



Tolosako Babarruna

GOZA ITZAZU



www.tolosakobabarruna.eus

Tel.: 943 65 02 53

SHUYANA

EDERGINTZA



Tolosa&Co
txartelarekin ordaindu
hiru hilabetetan
interesik gabe

Eskatu gure sustapen eskaintzak:

Aurpegiko tratamenduak:

- Fotogaztetzea
- Irratimaiztasuna
- Mesoterapia
- Drainatzea
- Ultrahotsak
- Azidoak
- Oxigenoterapia



Itzali adimena eta
piztu zentzumenak

Gorputzeko tratamenduak:

- Murriztailea
- Zelulitisaren kontrakoa
- Tinkatzea
- Zirkulatorioa

ESTETIKA: Eskolapioetako Lorategiak 3, 1A. • Tel.: 943 675 489

KOSMETIKA: Korreo kalea 1. • Tel.: 943 671 468

TOLOSA

1990

diecinueve
noventa
gastroteka

Berria, originala,
ezberdina...



Gure karta
ikusi
al duzu?
Baietz pikatu...



Garagarza plaza, 5 | **ORDIZIA** | Tel.: 943 88 40 79

Euskal Herria plaza, 5 | **TOLOSA** | Tel.: 943 119 017